

Hitzen ordena eta esaldiaren egitura informatiboa. Gogoeta historiko zenbaiten berri labur. Antzinatea

VICTOR HIDALGO EIZAGIRRE* **

1. GREZIA: SARRERA¹

H izkuntzalaritzan, giza-jakinduriaren alor gehientsuenetan bezala, greko klasikoetaraino atzera genezake begirada, gizakiaren lehen hausnarke-tak aurkitzeko gaiaren inguruan. Eta halaxe gertatzen da esaldiko² hitzen ordenaren eta esaldiaren egitura informatiboaren inguruko lehen gogoetekin ere. Zoritxarrez, gogoeta hauen berreraiketa ezin egingo dugu gaurdaino iritsi zaizkigun testu haien interpretazioaren gainean baino, eta tamalez asko bide dira bidean galdutakoak. Gainera, jatorrizko testu horietatik, eta garai hartako gizartetik, urruntzen gaituen 2.000 urte eta gehiagoko denbora ete-

* Doktore Euskal Filologian.

** Lan hau burutzea posible izan da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 1998-99 ikasturterako ikertzaileak prestatzeko zabaldutako programako beka baten bidez.

¹ Hemendik eskertu nahi nieke lan honen aurreko bertsioren bat irakurri duten guztiei egin dizkidaten ohar eta iradokizun guztiengatik. Bereziki, Kepa Korta ILCLiko irakasleari. Erantzukizunak, beti bezala, nireak baino ez, noski.

² Testu osoan zehar *esaldi*-ez ariko gara, eta ez *perpau*-ez, salbu hauek espreski aipatzen ditugunean. *Esaldi*-ak izan nahi luke guretzat, ingelesezko *utterance*-ren sinonimo. Hau da, eztabaida sako-negietan sartu nahi gabe, beti testuinguru baten barne emandako proposizioaren unitate minimoa, inguruko beste esaldiekiko independentzia sintaktikoa duena, baina egitura desberdinak erakuts ditzakeena testuinguru bakoitzaren baitan, derrigorrez bete beharrik gabe perpau teorikoen definiziorako eman ohi diren ezaugarriak, edota ezaugarri guztiak bederen. Halaz guztiz, *esaldi* asko izango dira, era berean, *perpau* gramatikal.

na hain handia izaki, zeinahi berreraiketak izango du berarekin nolabaiteko maila konjektural saihestezinezko bat, eta jakinaren gainean aritu beharko dugu horren gainean³.

Dakigularik, erretorikaren (h.d. *ongi hitz egiteko artea-ren*) inguruko lehen gogoetak, sofistekin hasten dira, K.a. V. m. inguruan. Eta jada Platonekin (~427--347 K.a.) eta Aristotelesek (384-322 K.a.) hasiko da, nolerebait linguistikoa edota, gaurko zentzuan, gramatikala⁴, dei litekeen espekulazioa. Nahiz, hau ere, hasieran, ez den hasiko zeharbideetatik baino. Zeren, ez Platon, eta ez Aristoteles, ez dira inoiz izango, helburuz bederen, hizkuntzalari edo gramatikari. Beraiek, guztien gainetik, filosofoak dira, h.d. *giza jakintza oroz* kezkatuak, bai, baina ez bereziki hizkuntzaz. Eta honi, hizkuntzari, hurbilduko zaizkio, soilik, honen beharra sentituko duten neurrian beren pentsamendu filosofiko orokorra (eta Aristotelesen kasuan, pentsamendu, jada, *logikoa*), edota erretorikoa garatzeko. Aristotelesek berak erretorikari *persuasioaren artea* deituko dio; h.d. bestea(k), hiztunarenera erraz eraman, ekarri, limurtu, sinestarazi eta konbentzitzeko modurik hoberenean hitz egitearen artea.

Beraiek izango dira lehenak terminologia linguistikoa garatzen. Hau, ordea, bestela ere espero ez zitekeen bezala, ez da batere zehatza izango, eta bai oso anbigua beti. Eta bestalde, hala beren terminologia berriak, nola beren ikuspegi linguistikoko orokorrak, ezin egingo die ihes, beraiek abiatu direneko unibertso filosofiko (kasuan, logiko) edo erretoriko hari, eta beti ageriko da ukitu filosofikoz (kasuan, logikoz) edo erretorikoz nahasia. Eta horixe gertatuko da esaldiko hitzen ordena eta esaldiaren egitura informatiboaren inguruko lehen gogoetekin ere, segidan ikusiko dugun bezala.

Eta hala ere, terminologia anbiguo horiek, eta hizkuntzaren ikuspegi logiko-filosofiko-erretoriko horiek, ezin arrakasta handiagoa bereganatuko dute ondorengo gizaldietako filosofo, nola gramatikarien artean. Eta kasu askotan gaur eguneraino iraungo dute gure artean, beti modu batera edo bestera baldintzatuz, maiz uste gabean izango bada ere, gure ikuspegi orokorra hizkuntzaren gainean.

2. ESALDIAREN EGITURA INFORMATIBOAREN INGURU

2.1. Platon: *onoma* eta *rhema*

Esaldia, egitura informatiboari dagokionez, binomio batez osatua kontsideratu ohi da maiz. Batetik, elementu hura/haiek ZERTAZ ARI DEN esaldia hitz egiten, eta bestetik, ZER ESATEN DUEN aipatzen ari den elementu hari/haiei buruz. Bikote informatibo hauxe bera agertuko da, jada lehen definizio grekoetan bertan, esaldiari begiratu ahal izateko ikuspegietako bat bezala. Nahiz

³ Gure honetarako nagusiki erabili dugu A. Scaglione-ren 1972ko *The Classical Theory of Composition* lana. Nolanahi, bibliografian aipatzen dira erabilitako beste historia edo monografia guztiak ere. Ahal izan dugunean autoreen jatorrizko iturri edota itzulpenak ere erabili ditugularik.

⁴ Hasiera batean GRAMMATIKOS hitzak ez baitu adierazten hain zuzen, *letrak*, *hizkiak* (h.d. GRAMMATA-k) ezagutzen dituen pertsona hura baino. Eta TECHNE GRAMMATIKE-a, berez, ez da izango, *letren, hizkien teknika* hura baino; bestela esan, *irakurtzearen eta idaztearen artea*.

ikuspegi hau ere ez den inoiz ikuspegi bakarra izango. Hala, Platonek (-427-~347 K.a) hasieratik gordeko die zentzu hau ere, besteren artean, ONOMA eta RHEMA terminoei, bi hauek bereiziko dituenean esaldiaren (*logos*-aren)⁵ oinarritzko bi osagarriak bezala⁶. Hala ere, bi kontzeptuen erabilera, zeharo anbigua izango da beti Platonentzat (cf., besteak beste, Robins, 1979, 38). Hala, esateko:

- ONOMA hitzak, hasiera batean soilik *deitura* esan nahi zuenak, eta ge-roago, gure *izen* ere bai, eta are, oro har, *hitz*, baina baita ere *subjektu gramatikal*, zinez esan nahiko du MINTZAGAI ere. Hau da, HURA, ZERTAZ HITZ EGITEN DEN ESALDIAN. Gaur eguneko hizkuntzalaritzan, maiz, TEMA deitzen dena, Pragako Eskolako gramatikarien eraginez; edota TOPIKOA ere ingelesezko literaturan, Bloomfielden ondotik.
- RHEMA hitzak, aldiz, hasieran besterik gabe *esaera* edota *atsotitz* esan nahi duenak, eta gero *ekintza*, edota ere *aditz*, *atributu*, *predikatu osagarri*, eta, oro har, *predikatu gramatikal*, era berean esan nahiko du, hain zuzen, MINTZAGAIARI BURUZ, h.d. ONOMA-RI BURUZ, ESAN NAHI DEN, PREDIKATU NAHI DEN IRUZKIN, PREDIKU HURAXE. Hau da, Pragako Eskolak gaur eguneko hizkuntzalaritzarako errekuperatu duen ERREMA terminoaren esanahi bera, edota ingelesezko KOMENTOA, frantsesezko PROPOSA...

Platonek, seguru asko esanguratsuki, beti segida horretan bertan izendatzen ditu ONOMAK eta RHEMAK esaldiaren osagarri bezala. Dakigularik, ordea, berak ez du inoiz agerian ezer aipatuko bi osagarrien arteko ordenamendu aukerez.

2.2. Aristoteles: *subjektua* eta *predikatua*

Aristotelesentzat ere (384-322 K.a.) ONOMA eta RHEMA jarraituko dira izaten esaldiaren oinarritzko bi osagarriak. Baita, guri interesatzen zaigun ikuspegi informatibotik ere, *tema / mintzagai // errema / prediku* zentzuan, Platonekin jada aipatu ditugun beste zentzu ugarien artean. Aristotelesen erabilera, ordea, termino hauek zentzu estuago eta gramatikalago, edo sintaktikoago bat ere joango dira irabazten beste guztien gainetik, nahiz anbigutasunak bere horretan iraungo duen. Bere *Interpretazioaz*-en (*Peri hermeneias*, III), edota zehaztasun gehiagoz *Poetika*-n (XX), baina baita beste hainbatetan ere, Aristotelesentzat *onoma* oso maiz bihurtuko da, soilik, IZEN NOMINATIBO-aren sinonimo, eta beraz, esaldiko SUBJEKTU GRAMATIKAL-arena (nahiz, era berean, *ekintza egiten duen* SUBJEKTU LOGIKO harena ere bai maiz). Ezarian, bigarren maila batera hasiko dira pasatzen, bai *onoma*-ren *mintzagai* zentzua, eta bai honen aukera *nominatiboaz beste izenik* izendatzeko. *Rhema*,

⁵ Berez, *logos*-a izan liteke *diskurtsoa* bera ere, aipatu terminologiaren garaiko anbiguotasunaren haritik. *Logos* hitzak nonahi hartzen ahal du, testuinguruaren arabera, *mintzo*-aren eremu semantiko osoa, beste eremu zabalago ugari gain.

⁶ *Kratilo* 399B, 425A; *Teeteto* 206A; *Sofista* 262A-263D (cf. Arens 1969, I, 22; 26; Itkonen, 173). Hala, esateko, Platonek *anthropos mathanei* (*gizonak ulertzen du*), esaldi (*logos*) bere hitzetan "modu simple eta laburrenekoaren" iruzkinean dioenean, kasuan "batera ematen ari dela *gauza bat* (*pragma*) *ekintza batekin* (*praxei*) ONOMA baten eta RHEMA baten bidez". Hala dio: *syntheis pragma praxei di' onomatos kai rhematos* (*Sofista*, 262D-E; cf. Itkonen, 173).

bere aldetik, gero eta maizago izango da, soilik, ADITZ (h.d. denbora bere barne adierazten duen elementua), beste nolabaiteko bigarren maila batera pasaraziz haren funtsezko *prediku* zentzua. Ondorengo tradizio gramatikalean, nolana, *predikatu* izenak berak luze iraungo du *aditzaren* sinonimo bezala ere⁷.

Zalantzarik gabe, Aristotelesek ezarri zituen oinarriak, geroztik guganaino iritsi diren esaldiaren *bi polotako* definizio tradiziozko guztietarako (cf. Mounin, 96):

ESALDIA (kasuan jada PERPAUSA) = SUBJEKTUA + PREDIKATUA

horren itxurakoak, eta non, hala ere, *subjektu* eta *predikatuari*, gutxieenez, hiru ikuspegi desberdinetatik ere segituko zaien begiratzen. Horrela moduz:

1. Ikuspegi GRAMATIKALA esan ohi zaiona, eta agian hobeto SINTAKTIKOA edo esan geniezaiokeena, eta zeinaren arabera SUBJEKTUA litzatekeen, tradizionalki, *aditzarekin komunztadura erakusten duen elementu hura*⁸.

2. Ikuspegi LOGIKOA esan ohi zaiona, eta agian hobeto esan geniezaiokeena SEMANTIKOA, eta zeinaren arabera SUBJEKTUA litzatekeen *esaldiak aldarrikatzen duen ekintza / proposizio hura aurrera eramaten duena*⁹.

3. Azkenik, ikuspegi INFORMATIBOA edo PREDIKATIBOA, Platonekin hasita definitzen gatozena, eta zeinen arabera SUBJEKTUA, besterik gabe litzatekeen, esaldiko MINTZAGAIA, TEMA hura, ZERTAZ HITZ EGITEN DEN esaldian. Kasu handirik egin gabe, MINTZAGAI hori izango den gero, ekintza *egiten duen hura* edo ez; edota *aditzarekin komunztatutako subjektu gramatikala* den edo ez den. Hala interpreta liteke, gainera, latinezko SUBIECTUM hitzaren esanahia bera: *azpian dagoena, oinarria*¹⁰, eta zeinen gainean eraikiko den gero esaldian ematen, predikatzen den hura. Finean, ez da besterik, latinaren bidez gure inguruko hizkuntza askotara iritsi

⁷ Ikus liteke Aristotelesen kontzeptuen nahasteaz, Itkonen 177-8 ere.

⁸ Definizioaren alde ahulak nabarmenak dira euskararen ikuspegitik ere. Euskal aditzak hiru kasurekin ere erakutsi ohi baititu komunztadurak (absolutiboa, ergatiboa eta datiboa), interlokutorearekiko erakuts ditzakeen haiez gain adizki alokutiboetan. Beste zenbait hizkuntzatan, berriz, aditzak, sinkronikoki bederen, ez du batere komunztadurarik erakusten inongo argumenturekin; ezta "subjektuarekin" ere. Hala nola, gaur eguneko ingelesez (non orain aldiko 3. pertsona singularra baino ez den markatu ohi); edo danieraz (cf. Martinet, 217); edota ahozko frantsesaren forma ugaitan, nahiz forma berak bai bereizi idatzian. Ezaugarri honek eragiten die, zalantzarik gabe, hizkuntza hauei guztiei, subjektuaren agirian ematera.

⁹ Eta halako definizio baten alde ahulak ere nabariak dira. Bai baitakigu, esaldi askok ez duela berez ekintzarik adierazten (esaldi identifikatzaile edo atributiboak kasu). Edota beste zenbaitetan, subjektu gramatikalak ez duela ekintzarik burutzen, baizik eta jasaten (*min hartu* aditzarenak bezala). Bestalde, badakigu *egiletasunaren (agentetasunaren)* kontzeptua bera ere anbiguo dela. Eta euskara bera da horren adierazle on. Zenbait ekintzatan egilea eta jasalea pertsona bera ohi direlako (aditz iragangaitzak kasu). Eta euskarak *absolutiboa* eman ohi ditu subjektu horiek. Beste zenbaitetan, berriz, pertsona desberdinak ohi dira egile eta jasale (aditz iragankorrak). Eta euskarak, kasuan, ergatiboarekin markatzen du egilea, eta jasalea absolutiboa uzten.

¹⁰ *Subicio, sub iacio* aditzetikoa. Azken batean itzuli baino egiten ez duena literalki grekozko esanahi bereko *hypokeimenon-a (azpian dagoena), hypokeisthai* aditzetik (*azpian egon*).

den *subjektu* hitzaren esanahia ere, TEMA, GAI, KONTU, ASUNTU bezala (fr. *sujet*; esp. *sujeto*; ing. *subject*; it. *sogetto*; por. *sujeito*). Eta ez da ere besterik, oraindik ere gaur egun, gure iparraldean erabilia den SUJET hitza, hala, *gai*, *tema* esanahiarekin, nola ere pastoraletan¹¹. Gramatikaren alorrean, hala ere, *subjektuaren* azken ikuspegi hau baztertutxa gertatuko da pixkanaka, hizkuntza arruntean ez bezala¹².

Banaketa beretsua egin liteke PREDIKATU kontzeptuaren hiru ikuspegien inguruan¹³:

- PREDIKATU SINTAKTIKOA (GRAMATIKALA), bi esanahirekin: batetik, soilik, *aditza*, berarekin denbora adierazten duen elementua; eta bestetik, gaur egun *aditz sintagma* edo deitu ohi dena, h.d. *aditza*, eta honekin batera, esaldiko subjektua-ez-beste konplementu guztiak.
- PREDIKATU SEMANTIKOA (LOGIKOA): egiten den hura, ekintza adierazten duena (zenbaitetan ekintza honen beste ingurumariekin batera, salbu egilea-edo).
- PREDIKATU INFORMATIBOA: h.d. *mintzagai*az esaten den hura; eta pixkanaka, ordea, eta beste bi ikuspegiak gaina hartzen joango zaizkion hein berean, beste gabeen isuriko dena, izatera, soilik, esaldiak aipatu *subjektu gramatikall/sintaktiko* edo *logikosemantiko* hartaz predikatzen duen hura. Eta ez beste ezertaz.

Ikuspegi logiko/gramatikal edo semantiko/sintaktikoaren garaipenak ezarian eramango du, baztertutxa, *aditza* inoiz esaldiko *mintzagai* / *tema* kontsideratu ahal izateko aukera. Edota *subjektu gramatikala* esaldiko *gailur predikatibo* / *errema* / *prediku* bezala ematekoa. Eta ikuspuntu honek ere erabat baldintzatuko du gure gaur egunera arteko ikuspegi hitzen ordena eta esaldiaren egitura informatiboaren inguruan. Nahiz, azken batean, hiru ikuspegien nahaste hori bera mantendu den gaur egunera arte *subjektu* eta *predikatuen* definizio arruntetan.

2.2.1. Estoikoen ekarri semantikoaz

Ez dira zuzenean estoikoen lanak gorde gugana bitartean, ondorengo hainbat autoreren aipamenetan baino. Baina, hala dirudi, Aristotelesen ondorengo filosofo estoikoek (III. m. K.a.), maila *semantikoan* garatu eta formulatu bide zutela, ordura artean Platonek eta Aristotelesek *logos*-aren oinarritzko osagarri bezala postulatutako *onoma* eta *rhema*-ren arteko bikoiztasun "formalago"-edo hori. Eta hala aztertu bide zuten estoikoek LEKTON-a (h.d. *esaldia* (*logos*-a) maila semantikoan kontsideratua, eta zeinen adibide arruntena litzatekeen *axioma* -h.d. *lekton deklaratio*-), berriro bi osagarri osatua

¹¹ Hala esango du, esateko, *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoak*: SUJET 1. Ikuskizun, idazki, bertso eta, oro har, konposizio baten gai nagusia. 2. (hed.) Pastoraletako protagonista.

¹² Grekoengandiko tradizio gramatikalak, eta oinarritzko termino hauen erabilerak, hasiera batean eragiten dituen anbiguitateen inguruan, ik. ere Martinet 1983; Arens 1969, I, 22; 26; 30; Itkonen, 173-8.

¹³ Berez, latinezko PREDICO aditzetiko, *jendaurrean esan*, *aldarrikatu* esanahiaz.

(Itkonen, 186-7): batetik, KATEGOREMA (*rhema*, maila semantikoa kontsideratua); bestetik, PTOSIS-a (berez, *kasua*, eta hala, hedaduraz: *kasua daraman elementua, izena*), edota hobeto oraindik, PTOSIS ORTHES-a (h.d. *kasu zuzena, nominatiboa*). Hala, ondo nabaria gertatuko da bi definizioen arteko parekotasuna:

$$\begin{array}{c} \text{PERPAUSA} = \text{SUBJEKTUA} + \text{PREDIKATUA} \\ \updownarrow \qquad \qquad \updownarrow \qquad \qquad \updownarrow \\ \text{LEKTONA} = \text{KASU ZUZENA} + \text{KATEGOREMA} \end{array}$$

3. ESALDIKO ELEMENTUEN ORDENAZ GRAMATIKAREN IKUSPUNTUTIK

3.1. Aristotelesen (384-322 K.a.) ordenamendu aukera librea

Platonek ez bezala, Aristotelesek behin behintzat aipatuko du bere lanetan (*Interpretazioaz -Peri hermeneias-*, X, 20b), ONOMA eta RHEMA-ren arteko (agian hemen, jada, SUBJEKTU eta PREDIKATU-aren arteko) *ordenamendu aukera librea*. Grekoz agidanean berdin esan omen baitzitezkeen garaietan:

*esti anthropos leukos (da gizona zuria), nola
esti leukos anthropos (da zuria gizona)*¹⁴

Aristotelesek agerian esaten du bertan nola ordena aldaketa horrek ez duen aldatzen esaldiaren esanahia. Baina Aristoteles, kasuan, esaldiaren *esanahi logiko* edo *proposizionalaz* ari da, noski, eta ez bestetaz. Bertan ez da aipatzen, delako esaldi osagarri horien status informatiboaren aldaketa konturik. Hori ez da pasartean Aristotelesen kezka. Nolanahi, hau izango da, dakigularik, historia ezagunean egiten den lehen aipamena esaldiko elementuen ordenaren inguruan. Eta hurrengoa aurkitzeko, gutxienez beste hiru mende itxaron beharko dugu, eta hura jada erretorikaren bidetik etorriko zaigu. Ez gramatikarenetik.

3.1.1. Estoikoen lanen ezezagutza

Nahiz filosofo izan, eta logiko Aristotelesen itzaletik, estoikoek garatu bide zuten hizkuntzaren filosofia eta teoria gramatikal bat, askoz osatuagoa, Platonek eta Aristotelesek baino¹⁵. Beren jarrerak *anomalista*-tzat ezagutuko dira, hizkuntzaren erabileraren irregularitasunei (ere) garrantzi handia eman ohi zieten neurrian. Eta guretzat garrantzi gehiagokoa litzatekeena, era berean garatu bide zuten esaldiko elementuen ordenaren gaineko ikuspegi zaba-

¹⁴ Eskerrak hemendik Jabier Agirre irakasleari, grekoarekin, oro har, eskaini didan laguntzarengatik. Baita ere Koro Lasa andereari hainbat latinekin eginiko argitasunengatik.

¹⁵ Beraiek zehazten bide dituzte lehenbizikoz, esateko, izen grekoaren deklinazioaren bost kasuak. Edota aditzaren denbora eta aditz mota desberdinak (Arens 1969, 31). Era berean, beraiek aterako dute lehendabiziko aldiz adjektiboaren azterketa (eta jada behin betiko gure mendebeleko tradizioan), *rhema*-ren (*predikatuaren*) alorretik, *izenarekin* (*onoma*-rekin) batera aztertua izaten hasteko (cf. Robbins, 39), biak direnez gero deklinagarriak, eta aldiz aditza, "berezko predikatua" ez denez deklinagarri.

lagorik ere¹⁶, nahiz eta hauek, beren lan gehienak bezalatsu, ez diren gaur eguneraino iritsi, hauen oihartzun eskasetan baino. Ez zaigu ere halakorik heldu, estoikoen kide eta jarraitzaile izan ziren Pergamoko eskolako filologo-egandik.

3.1.2. Alexandriako eskola

Pergamoko eskolako fillogoen parean garatuko da Alexandrian beste eskola bat ere, testu greko klasikoak, jada zahar bihurtuak (Homero, esateko, K.a. IX. m.-a da), ongi ulertu, eta garai berrietarako ulergarri gorde nahian. Estoiko *anomalista* haien parean, ordea, hauek *analogistak* izango dira, eta batez ere hizkuntzaren erregulartasunak aztertu nahiko dituzte, beste maila bateko begiradetakako utziaz, beraiek sistemaz kanpoko fenomeno bezala baztertu nahiko dituzten hizkuntzaren "irregulartasunak". Bertako maisurik handiena izango da Aristarko Samotraziakoa (217-145 K.a.), eta honen dizipuluetakoa, Dionisio Traziakoa (I. m. K.a), mendebaleko lehen gramatikaren egilea (*Techne grammatike* izenekoa).

Dionisioren *Techne grammatike*-an laburbilduko da bere xumean (berrogeita bost lerrokada gordin baino ez baitira izango finean), grekoen lau mendetako hausnarketa gramatikaren fruitua. Eta zalantzarik gabe, estoikoena ere barne. Bertan emango da esaldiaren, eta izen hori merezi lezakeen, lehen definizio zehatza: *esaldia da... hitzez eginiko osotasuna, pentsamendu oso bat adierazten duena* (Scaglione, 5). Eta bertan zehazten dira, dakigularik, lehenengo aldiz, esaldi grekoaren osagarriak diren 8 atal desberdinak. Gerora, ezin arrakasta handiagoa izango duen sailkapena, are grekoaren antz gehiegirik izango ez duten hizkuntzen artean ere, bakoitzak bere modura egokitu nahiko duelarik gero bere esaldiko 8 ataletako sailkapena. Dionisioren gramatika ez da bakarrik mendebaleko aurrenekoa izango. Baita ere izango da ondoren mendebalean etorriko diren beste guztien erredua. Eta zalantza gabeko eragina izango du Erdi Aroa eta Errenazimentura arte, Europa osoan ez ezik, judu eta arabiarren artean ere, oso goizik izan zelarik itzulua, besteak beste, siriako zaharrera eta armeniora ere.

Dakigularik, gramatika honetan erabiliko da lehendabiziko aldiz SYNTAXIS hitza agerian, gaur eguneko zentzu gramatikalean¹⁷. Baina, sintaxiaren azterketa esaldi atalen azterketaren ondorenerako uzten duelarik, Dionisioren gramatikak ez du puntu hau, azkenik, batere jorratuko. Ez eta hitzen ordenamenduren konturik ere esaldian. Artean, gutxienez beste bi mendez itxoin beharko da mendebalean, obra honen konplementuko litzatekeen lehen sintaxia ezagut dezagun: Apolonio Diskolo Alexandriakoaren (II. m. K.o.) *Sintaxiaz* liburua. Itzuliko gara honetara aurreraxeago (3.4). Kontua da, bitarte guztian, bost mende inguruz, sintaxi kontuak (*periodoen* sintaxia eskola gre-

¹⁶ Hala dio bederen, nahiz soilik hauen lanak gaitzesteko izan, Dionisio Halikarnasokoak (30 K.a.), aurrerago zabalago aipatuko dugunak (3.2), bere *Konposizioaz* lanean (IV). Dionisiok agerian aipatzen ditu Krisipo (281-205 K.a) maisu estoikoaren bi liburu, gaiaren inguruan, izena *Esaldi (diskurtso) atalen antolamenduaz* izan bide zutenak, baina iritsi ez zaizkigunak gure gaurko egunera.

¹⁷ Eta ez hitzak hasieran duen berezko zentzu militar hutsean, *ordenarekin batailan*, edo *batailako ordenarekin* esanahian: SYN: sozietatiboa, *-(e)kin*; TAXIS: *ordena batailan, batailako ordena* (nondik ere, esateko, TAGMA hitz grekoa, *armada, gudaroste* esanahikoa).

koan; *constructio*-arenak latinoan), eta oso bereziki, hitzen ordenaren kon-
tuak, soilik, erretorika landuko duten haien eskutik ezagutuko dela (ik. 4 ata-
la). Eta gero, hortik egingo dute salto, inoizka, gramatika, edota logikaren in-
guruiko zenbait gogoetetara.

3.2. Dionisio Halikarnasokoa (30 K.a.): *Naturak ez baitu erregularik ematen*

Zuzenean, hitzen ordenaren gaineko hurrengo aipamenak Dionisio Ha-
likarnasokoarenak izango dira, Alexandriako eskolako maisu erretorikoa,
Erroman ari dena irakasle K.a.-ko 30. urtean. Dionisio Halikarnasokoak,
guztira idatzitako 20 liburuen artean, utziko du *Konposizioaz* izenekoa ere
(*Hitzen antolamenduaz* izenburuz ere itzuli ohi da)¹⁸. Gorago aipatu bezala
(3.1.1), Dionisiok mesprezatuko ditu Krisipo estoikoaren lanak¹⁹, eta bere
gogoeta propioari ekingo dio liburuaren V. atalean, zeinari Batteux-ek bere
itzulpenean ezin izenburu esanguratsuagoa emango dion: *Naturak ez baitu
erregularik ematen hitzen ordenamendurako*. Eta hala dio Dionisiok (v), berak
maiz pentsatu bide duela, nola, berez, naturak gidatu behar ote lukeen hitzen
antolamendua esaldian. Eta hala eman beharko ote lirartekeen beti natura-le-
ge honen arabera, esateko:

- IZENAK²⁰ ADITZEN AURRETIK²¹
- ADITZAK, berriz, ADBERBIOEN AURRETIK²²
- ESALDIKO ATAL DESBERDINAK emanak DENBORAREN ORDENA JARRAIKIZ,
lehenik gertatuak lehenik azalduak
- izenak (izen propioak?) beren aposizio edo adjektiboen aurretik; hala
nola hauei buruzko izenordeak ere; apelatiboak izenen (izen propioen?)
aurretik; eta aldiz, izenordeak apelatiboen aurretik; jatorrizko adizki zu-
zenak, berriz, eratorrien aurretik; eta horrela gainontzekoak²³

Dionisiok, hala ere, inongo begirunerik gabe baztertuko ditu, hasiera be-
retik, sasi-arau hauek guztiak. Banan bana. Denak ere, egia itxura eduki bai,
baina, inola ere, egia ez direlakoan; hizkuntza barreneko beste milaka adibi-
dek argi asko erakusten duen bezala (eta Dionisiok berak jasotzen ditu hain-
bat). Gerora, gauza beretsua esango du Kintilianok ere (~30~100 K.o.), esal-

¹⁸ Hala nola, Batteux-ek egiten dion itzulpenean (ik. bibliografia).

¹⁹ Zeinen gainean dioen, zeinahi ikerlariri eskarmentagarri gerta dakigukeen modu periodiko, an-
titetiko jakingarri batean (IV): *Ez du inork tratatu dialektika hark* [Krisipok] *bezain zorrotz eta zoli, eta
ez ditu inork okerrago josi eta antolatu bere hitzak*. Beldur gara gu ere.

²⁰ Dionisioren kasuan, hala ere, garbi da, berak agerian emaniko beste kasuetako adibideetatik,
berak ez duela inola ere identifikatzen *izena / onoma*, nominatiboarekin, ez subjektuarekin.

²¹ Eta arrazoibide bezala azalduko du, nola *naturan substantziak bide diren beti akzidenteen aurre-
tikoak*, Aristotelesen oihartzuneko terminologia logikoan. Gerora ere, terminologia eta arrazoibide be-
rak kutsatuko ditu Apolonio Diskoloa eta Prisziano, eta hauen bidez, Europa osoa ere Erdi Aroko dis-
kiszioetan.

²² Naturan ekintza bide delako, honen moduak eta zirkunstantzi guztiak baino lehenagokoa.

²³ Egia esan, azken puntu honetan badira interpretazio arazoak, bertsio desberdinen konparake-
tan argitzen ez direnak.

diko elementuen sekuentziazio morfologiko horiez: *batzuetan betetzen dira, beste askotan, ordea*, ez (IX, iv, 24; Lausberg 1960, §952a ere).

3.3. Demetrio (K.o. I. m. amaiera): Dionisio Halikarnasokoak gaitzetsitako *ordena naturalaren* lehen aldarrikapena

Dionisio Halikarnasokoak baztertu arren, ez da mendea baino igaroko, Demetriok (K.o. I. m. amaiera)²⁴ bere *Interpretazioaz* liburuan (IV) ORDENA NATURALA (*phisike taxis*) dei diezaien jada, hain zuzen, Halikarnasokoak natural bezala horren gartsu gaitzetsitako ordenamendu beroriei. Demetriok biziki gomendatuko ditu gainera ordenamendu hauek narrazio mota arrunte-rako beti, ustez, honen argitasunaren mesedetan. Eta bereziki aipatuko du, nola esaldiek beren *subjektuaz* (*subjektu gramatikal-sintaktikoaz* suposatu behar) hasi beharko luketen beti, argitasuna faltako ez badute. Demetriok, halako sekuentziazio morfologikoentzat, hasten duen *ordena natural* deitura honek ezin arrakasta handiagoa bereganatuko du gerora gure mendebalean. Azkena, XVII eta XVIII. mendeetako Frantziaren inguruan, Port-Royaleko gramatikaren ondotiko hitzen ordenaren gaineko eztabaida sutsuetan. Nolanahi den, Demetriok ere onartuko ditu *ordena natural* horren inbertsio aukerak, nahiz, halaz guztiz, berak beti egingo duen apustu *ordena naturalaren* alde (Scaglione, 81; Hagège, 205).

3.4. Apolonio Diskolo (II. m. K.o.): Ordena gramatikala

Sintaxia, zalantza gabe, garaiko airetan dabil. Aipatu Demetrio, eta Dionisio Halikarnasokoaren iruzkinez gainera, ezin ahaztu dira Zizeron (106-43 K.a.) edo Kintiliano (-30--100 K.o.) bezalako *oratore* / erretoriko erromatarren esaldien antolamenduaren gaineko kezkek (zeinetako batzuk, bederen, aurrerago aipatuko ditugun 4. atalean). Varron-ek ere (116-27 K.a.) sintaxiaz ihardun bide zuen bere *De lingua latina-ko* 25 liburuetako XIII.tik XXIV.era bitartean. Zoritxarrez, galduak dira hauek ere gaur egun. Bestalde, Alexandriako eskolan bertan ere izan bide ziren sintaxiaz ongi kezkatu ziren maisuak. Hala, Trifon Alexandriakoa, Apoloniok horrenbeste aipatuko duena bere liburuan; baita ere, honen dizipulu bide zen Habron, Apoloniok ere aipatua; edota Teon Alexandriakoa (K.o. I. m.-aren lehen erdikoa), *Esaldiaren sintaxi kontuak* izeneko liburua ondu bide zuena, eta hala, Apolonioren derrigorrezko aitzindari behar duena (cf. Bécaries 1987). Ordea, gramatikaren bidetik iritsiko zaizkigun esaldiko elementuen ordenaren inguruko lehen gogoetak, izango dira, Apolonio Diskolo Alexandriakoarenak (II. m. K.o.)²⁵. Bere lanik gehienak galdu dira, baina gorde diren lauretako sendoena da, zalantza gabe, *Sintaxiaz* obra, lau liburukitan banatua. Antzinetatik ezagutzen dugun lehen gai honetaz gramatikaren ikuspuntutik, eta agidanean, bere garaian ere, arrakasta handia bereganatu zuena jada.

Apoloniok ere, aipatu bezala (3.2), Demetrioren bidetik joko du, eta ohi bezala arrazoibide metafisikoak erabiliko ditu berak proposatutako ordena-

²⁴ C. Hagègek, beste ikertzaileek ez bezala, Démétrios Ixion deitzen dio (1985, 205).

²⁵ Agidanean, *diskolo* ezizena (*zakarra, zaila* esanahikoa) irabazi bide zuen bere idazkeraren, izaeraren edota pentsaeraren labur eta gaitzagatik. Edota, beharbada, denegatik ere batera.

menduei oinarri ematerakoan: *substantzia* baita *akzidenteen* aurretikoa,... (I, §16; I, §§19-29). Esaldiko elementu oinarrikoen bezala izendatuko ditu, eta arrazoitu, esaldian inoiz falta ezinezkoak bezala, IZENA (nominatiboa? subjektua?) eta ADITZA (predikatua?) (I, §14; I, §30). Eta hala sailkatuko ditu esaldiko beste elementu guztiak bi hauen mendeko (I, §36). Azkenerako ordenamendu arau oso garbia emango duelarik (I, §§13-18):

- lehenik, IZENA (subjektua?); edota honen ordezeko izenordea
- bigarren, ADITZA
- ondoren, ESALDIKO BESTE ELEMENTU GUZTIAK²⁶

Finean, Apoloniok, Dionisio Halikarnasokoak eztabaidatutako "ordena natural"-tzako huraxe bera defendatuko du. Hark gaitzesten zuen huraxe hizkuntzaren errealitatearekin bat ez zetorrelakoan. Hala ere, Apolonioren nola-baiteko deskarguan esan liteke, agian, nola greko klasikoan, berez nahikoa ordena libreko hizkuntza, hainbat maiz aurki litekeen benetan bertan SAO itxurako ordena gauzatua (Subjektua-Aditza-Objektua), esaldien ohiko egitura informatibo bati jarraiki. Besterik litzateke, inondik ere, erregela bera baino ugariagoak ere izan litezkeen "irregulartasunen" kontu ematea.

Bestelakoan, Apolonioren lan honek hasten du, zalantza gabe, mendebaleko tradizio gramatikala, horren errotua, sintaxiari hurbildu nahi izateko beti, ez esaldiaren ikuspegi global batetik, tradizio hinduan, aldiz, bai gertatu bezala (Itkonen, 201), baizik eta, sintaxiari hurbiltzeko beti, esaldiaren osagarri diren hitz klase eta funtzio gramatikal desberdinen ikuspuntu beti zati-katu batetik.

Eta izan ere, Apolonioren sintaxiaren eragina ezin handiagoa izango da ondoko gramatikarietan²⁷. Eta are filosofoen artean, nola Aristotelesen komentariak, zeinen bidetik berrituzuliko den Apolonioren sintaxia gramatiketara ere berriro, batzuek besteak berrelikatzen. Apoloniok eragin sintaktiko zuzena izango du, artean zuzenean grekoz transmititzen den jakinduriaren bidez, Erdi Aroan bertan²⁸, edota Errenazimentuan ere²⁹. Apolonioren ondorengo eraginik nabarmenena, nolana, latinaren bidezkoa izango da, Priszianok (VI. m. K.o.) osatuko duen gramatika latinoaren bidezkoa (ik. 3.5 atala).

3.5. Prisziano (VI. m. K.o.): Mendebaleko tradizio gramatikalaren aitalehen

Priszianok, Mauritanian jaioa (gaur egungo Aljerian), Konstantinoplan irakatsi zuen K.o. VI. mendean. Beste lan urriago batzuen ondoan idatzi zituen bere *Institutiones grammaticæ*-etako 18 liburukiak, zeinetako azken biek

²⁶ Badu Apoloniok (III, §87) arrazoinamendu metafisikoa ere, azaltzeko, nola *subjektuak* joan behar duen *objektuaren* aurretik, *aktibitatea* delakoz beti pasibitatearen aurreko (Bécares 1989, 82).

²⁷ Esateko, Sexto Enpiriko, Aulo Gelio, Kakrobio, Ponpeio, Mario Victorino, eta bestegan (cf. Bécares 1987, 60).

²⁸ Hala, esateko, Migel Sinzelo (IX. m.), Gregorio Korintio (X. eta XII. m. artekoa), edota Maximo Planudes-en lanetan (XIII-XIV m.) (Bécares 1987, 61).

²⁹ Nola, Teodoro Gazakoagan (1400-1475); edota Konstantino Laskariskoarengan (1434-1501) (Bécares 1987, 61).

diharduten sintaxiaz (*De constructione* izenekoak, "Priscianus minor" deituko direnak). Priszianoren lana, nolahi, ez da originala. Berak maiz aitortzen duen bezala, finean ez omen du egiten *itzuli* baino bere hizkuntza latinera, ahalik eta estuen eta lotuen beti, Apolonioren lana, zeinari berak *grammaticorum princeps* deituko dion.

Eta esaldiko elementuen arteko antolamenduaz ere, h.d. *constructio*-az (latinezko *struo* aditzetik, *egoki antolatu* esanahian, grekozko *sintaxis* hitzaren esanahi berean), Priszianok Apolonioren ordenamendu arau berak aldarrikatuko ditu bere horretan latinarentzat ere. Eta bere azalpenetan ezin argiago erakutsiko ditu bat eginak sintaxiaren eta logika aristotelikoaren arrazoitzeko bideak. Priszianok RECTA ORDENATIO deituko dio jada Apolonioren IZENA (SUBJEKTUA) ADITZAREN AURRETIK emateko aruari. Ordena hori, hala ematen baita, omen: NATURALITER, *naturaz*. Eta hala omen da ordena hau ORDENA ZUZENA, hain zuzen, NATURALA delako; eta gainera NATURALA, LOGIKOA delako (XVII, §105; Scaglione, 82-3). Priszianok jada argi asko formulatzen du ekuazioa, eta honek gero mende luzeetan iraungo du mendebaleko tradizio gramatikalean murgil-murgil eginik.

Priszianok, nolahi, argi onartzen du pasarte bereko segidan bertan, nola, hala ere, autoreek maiz "hartzen duten lizentzia" *ordena zuzen, natural* hau hausteko. Eta izan ere, Priszianok badu puntu honetan latinarekin arazo berezi bat, Apoloniok grekoaren gainean eginiko aldarrikapenarekin horren nabarmen izan ez zuena. Priszianok zalantza gabe ezagutzen baitu autore latino klasiko zenbaiten joera aditza erruz atzeratzeko esaldian, eta are aditza esaldiko azken gunean ematekoa ere. Baita ere esaldiko azken gune hau aditzarena bezala teorizatzeke joera ere zenbait autoregan (ik. latinaren balizko joera hauek direla eta 3.5.1 atala). Joera hori, edozein modutan, nabarmena da bederen grekoaren aldean. Eta Apoloniok grekoarekin bestelako arazorik izan ez bazuen ere, latinaren kasuan, aditza atzeratzeko joera edo teoria erlatibo hori, ez litzateke oso ongi lotuko Priszianok Apoloniorekin aditzari aldarrikatzen dioten esaldiko bigarren postuarekin. Hortik ere, noski, Priszianoren "autoreen lizentziak". Ordea, ez dirudi kontraesan horrek Prisziano bera gehiegi kezkatzen duenik. Eta izan ere, aditz gunearen inguruan ere, du da gabe eduki behar da kontutan latinaren joera orokorra, Priszianok ezagut zezakeen moduan, eta ez soilik autore edo testu, klasiko bai, ezagun bai, baina agian gutxi batzuen bano ez finean (ik. 3.5.1 atala).

Hasiera batean Donatoren (IV. m. K.o.) lan gramatikala izango da (haren *Ars maior* eta *Ars minor*-a) ondorengo mendeetako hizkuntzaren irakaskuntzan erabiliko dena. Pixkanaka, ordea, Priszianorena bihurtuko da eredu, maila jasoagoetan bederen. Eta eragin ikaragarria izango du. VII, VIII eta IX. mendeetan luze aipatua izango da beste gramatika lan ugarietan, eta bera bihurtuko da oinarritzko lana Erdi Aroko gramatika eskoletan, Donatorenak lehen hezkuntzan nagusi jarraituko duen bezala. Geroago, zalantza gabe, Priszianoren gramatika egongo da XIII eta XIV. mendeetako gramatika espekulatiboaren (hizkuntzaren logikaren) berpiztearen oinarrian. Gaur egun oraindik gorde dira gramatika honen 1.000 esku-kopia, eta 1470ean argitaratuko da jadaneko honen lehen ale inprimatua Venezian. Bi gramatikak ere, Donatoren eta Priszianorena, XVII. mendera arte erabiliko dira eskuliburu bezala. Eragina, bada, ikaragarria. Eta ordea, kontutan edukitzekeoa da, biak ere biak, ez direla ariko beren garaiko hizkuntza deskribatzen, edota aurreko

garai desberdinetakoa, baizik eta, soilik, beraiek "idazle onen"-tzat dituzten haien hizkuntza. Oso bereziki, Zizeron eta Virgiliorena, beraiek baino bost edo seihun urte lehenagokoak direnak. Horregatik hitz egingo du Lyonsek ere (1968, 14) halako gramatikek, mendeetan zehar eta gugana bitartean, deskribapen linguistikoari eginiko hurbilpen gehienetan iraurarazi diguten iruzur edo falazia «klasikoaz».

Gerora, XII. mende bukaeratik aurrera hasiko da berriro sintaxia gramatikaren bideetatik garatzen Erdi Aroko mendebalean. Orduan ere, ordea, ohi bezala, sintagmen estudioan segiko da oinarritzen, eta ez esaldi osoarenean. Eta ez da ere hauetan apenas ezer esango hitzen ordenaz (Scaglione, 4). Merzei duen ezer berriegirik ez bederen, jada XVII. mende inguruan Port-Royaleko gramatikaren ondotik berriro eztabaidari ekingo zaion arte, orduan jada frantses hizkuntzaren inguruan. Bitartean, esaldiko elementuen ordena eta honen egitura informatiboari buruzko kontuak, erretorikaren barne jarraituko dira aztertzen.

3.5.1. *Latinez, aditza amaieran? Euskaraz bezala?*

Hala egotzi ohi zaio tradizioz aditz latinoari esaldi amaierako gunea. Eta badirudi, joera hori ere, gutxieneko oso erlatibizatzeak dela, eta ziur aztergarri eta eztabaidagarria. Euskararen ikuspuntutik, gainera, bereziki interesatzen zaigu eztabaida hori. Ezen egia da, alde batetik, Julio Zesarren (K.a. 101-44) lanetan (*De bello Gallico*...) nahikoa konsistenteki gordetzen zaiola aditzari aipatu esaldi amaierako gunea (%84an esaldi nagusietan; %93an mendekoetan)³⁰. Ordea, Zesar izango da autore klasiko guztietan nabarmenena hori egiten, eta hala deituko dio Linde-k Zesarri aditzaren "amaiera gunearen fanatikoa" (cf. Panhuis, 118). Zesarrekin batera, ordea, badirudi soilik latinezko lege-testu zaharrak direla bakarrak aditzaren esaldi amaierako gune hori konsistentzia piska batez gordetzen dutenak³¹.

Garai historikoetarako, ordea, badirudi hitz egin behar dela latin hizkuntzaz, hau, jadaneko, AO (Aditza-Objektua) oinarritzko ordenako hizkuntza edo balitz bezala. Edo behintzat ez jada OA itxurakoa. Hala ageri baita jadaneko lehen literatur testuak ezagutzen diren garairako. Eta esateko, oso nabarmen, Plauto (K.a. 254-184) edo Terentzioren (K.a. ~190-159) antzerkietan, zeinetan ez dirudien jada batere garbi hitz egin litekeenik aditzaren posizio jakin batez esaldian, nola eta ez den komunikazioaren ikuspegitik (Panhuis, 152). Eta nahiz eta autore bi hauek bertsoan aritu, hala uste da, nola, testu hauetako hitz ordena, eta bereziki testuotako aditzaren gunea, ez bide litzatekeen garaiko latin arruntaren ispilua baino izango (Panhuis, 112). Hala, beraz, geroztiko Zesarren joera aditz atzerazalea ez bide litzateke iraultzailea baino Zesarren garai propioko ohiko ordenamendu joerena. Berria.

³⁰ Latinaren inguruko datu estatistiko hauek gehienak guk Panhuis 1982tik dakartzagu hona, berak hainbat iturri desberdinetatik bereganatzen dituelarik. Guk era berean erabili ditugu latinaren hitz ordenaren eztabaidarako, Dangel-en lana, eta Marouzeau-ren ugariak, bibliografian aipatu bigarren mailako beste batzuekin batera.

³¹ Latinaren historiaurreko garaietako erlikiatzat ere joa izan da joera hau, ez dakigu zein fundamentearekin, berez, hizkuntza protoindoeuropar bera litzatekeelakoan OA (Objektua-Aditza) itxurako oinarritzko ordena gordeko lukeen hizkuntza, besteak beste, Lehmann-en esanera (cf. Panhuis, 111).

Nahiz era berean agian arkaizantea ere izan bere ereduetan, edo bederen justifikazioetan. Eta komeni da badaezpada gogoratzea, nola, Zesar bera, gramatikalari ere baden, besteak beste, eta gutxienez gramatika lan baten egile (*De analogia* obra, hain zuzen, Zizeron handiari eskainia). Beraz, pentsatzen ahal da, Zesar bera ez dabilela bere idatzietan inoiz urrunegi, seguru asko, hausnarketa gramatikaletik.

Hipotesietako bat da, nola, aditza esaldi amaieran emateko joera, beharbada latinaren historia aurreko garaietatik mantendu bide zen, agian eredu literario bezala, goi-mailako latin mota batzuetan. Eta bereziki, beharbada, aipatu lege-testu zaharretan, edota, agian, historialarien lanetan ere, nola, esateko, eta maila batean bederen Katon Zaharrarenetan (234-149 K.a.), eta nabarmenen Zesarrenean. Baina baita ere beharbada Salustio-ren lanetan (K.a. 86--35).

Bestelakoan, Zesarren garai berekoa da Zizeron (K.a. 106-43), eta nahiz bera ere, artean nabarmen, aditz atzerazalea izan, honek Zesarrek baino nahikoa maila apalagoan gordetzen du aditzaren esaldi amaierako gunea, Zesarren setakeriaren aldean: jada soilik %35 eta 54a bitartean esaldi nagusietan; eta %61 eta 70a bitartean mendekoetan. Bien garai bere-berekoa da, ordea, Varron ere (K.a. 116-27), *De lingua latina*-ren 25 liburuen egilea, eta honek, aldiz, aditz nagusia ez du jada %33an baino emango esaldi amaieran; mendeko esaldietan %44an ematen duen bitartean.

Bestalde, ordea, Kintilianok (K.o. ~30--100) (IX, iv, 26)³², bera ere oso Zizeron zale, nola Fortunatianusek ere (*Artis rhetoricae*, III, xi; Lausberg 1960, §952c; Scaglione, 83), biek gomendatuko dute beren lanetan aditza esaldi amaieran emateko joera. Arrazoituz, aditza ohi dela esaldiko elementu semantiko nagusia; eta halakoari, ez bairik gabe, esaldi amaierako gunea komeniko litzaiokeela, berez esaldiko gune nabarmenena. Bestetik, nolana, biek, aipatu pasarte bereetan gomendatuko dute agerian, esaldi amaierako gune hori gordetzea aditza ez beste zeinahi elementurentzat ere, berau bereziki azpimarratu nahi izanez gero, zeinahi arrazoirengatik, aditzaren gainetik ere (ik. aurrerago, 4.10.1 atala ere). Are gehiago, Kintilianok era berean egingo dio inoiz dei ageria hitzunari, ez dezan bere aditza automatikoki atzera esaldian, monotonia gorrotagarrian erori nahi ez baleza (IX, iv, 25; Dangel, 113).

Nolana den, garai klasiko honetatik aurrera, h.d. K.o. I. m.-tik aurrera, badirudi latin eredu idatzia nahikoa gehiago hasiko zaiola lotzen berriro erabilera arruntagoari. Berriro ere alde batera utziaz Zesar edota Zizeronen joera aditz atzerazalea. Hala, esateko, jada *Peregrinatio Aetheria* bezalako testu batek (K.o.-go IV. m.-ko bidai egunkaria), soilik %25ean erakutsiko du aditza esaldi nagusiaren amaieran emana, eta %37an baino ez mendekoetan. Inoiz ere ez urrutiegi, nolana, aipatu K.a.-ko I. m.-ko Varronen datuetatik. Ez dirudi, beraz, jauzi ikaragarriegirik legokeenik berez inoiz, latina, eta honen ondorengo hizkuntza erromantzeek erakutsiko luketen AO (Aditza-Objektua) oinarritzko ordenaren artean.

³² Kalagorri jaioa, eta beraz, pentsatzekoa da, garaiko Euskalerrriaren muga-mugetan, *Hispania tarraconensis*-ean, eta gerora ere bertan ibilia bere helduaroan, boladaren batean behintzat. Pentsatzekoa da euskararen berri zuzen ere izanen zuela, garaian Oiasso-koa bezalako itsas-kai handia izaki erromatarrek euskal lurrian (gaur egungo Gipuzkoa-Nafarroetako mugako Irungo hirian), besteak beste, Ebro garaiko merkatal trafikoa ere bideratu bide zuena.

Eta izan ere, beharbada latinaren kasua ez da euskararen oso bestelakoa. Batetik, latinak, beste hizkuntza indoeuropar askok bezala joera oso nabarmena duelako Wackernagelen legea betetzeko (Marouzeau, *passim*), eta hala, esaldiko elementu gramatikalak bere multzoaren bigarren elementu bezala emateko. Aditz jokatuak ere joera beretsua gordeko luke, bere multzoko bigarren elementu bezala ageriz maiz, objektuaren edo beste konplementuren baten ondotik emana, OA oinarrizko ordena joera gordez, edota hobeto XA (non X edozein osagarri izan litekeen, eta ez soilik objektua). Eta hala, batetik, ulergarria izan liteke latinaren joera, euskaraz bezalatsu, aditza hainbat atzerago emateko gaur eguneko hizkuntza erromantzeek (edo bestek) joera duten baino. Gero, bestetik, nahikoa litzateke, hainbat gramatikari ospetsuk, hizkuntzak berezko duen joera hori, zuzen baino okerrago, aditz amaierakotzat teorizatzea, edota areago, hainbat idazle arrakastatsua atxikitzea joera horri, ondorengo urteetako ekoizpen literario guztia goitik behera baldintzatzeko. Are hizkuntzari buruzko hausnarketa bera ere. Eta hori gertatu ahal izan da latinaren kasuan, Zesar eta Zizeronen idazlanen eta ospearen ingurutik, eta Kintiliano edo Fortunatianus bezalako teorizatzaileen gibelatik. Eta izan ere, horixe gertatu da, ziur, euskararen kasuan, XX. mende hasierako Azkue edota Altuberen hitzen ordenaren inguruko teoriekin³³. Eta halaxe gertatu bide zen XVIII. mendean ere Kardaberazekin (ez dakigu, kasuan, Larramendiren zein laguntzarekin), eta zeinaren kume baino ez liratekeen, finean, gure arteko ondorengo aditz atzeratzaile guztiak. Hala, soilik nabarmenenak aipatzearren, Lardizabal edota Gregorio Arrue XIX. mendean, biak, bakoitza bere garaian, Kardaberazaren ondoretiko gipuzkeraren eredu berriak; eta hala moduz ere, Azkue eta Altube berak³⁴.

4. ERRETORIKAREN BIDETIKO EKARRIAK HITZEN ORDENA ETA ESALDIAREN EGITURA INFORMATIBOAREN INGURUAN

Esan bezala, gramatikarenetik ez, eta antzinate guztian, erretorikaren bidetik helduko zaie esaldiko elementuen ordena eta honen egitura informatiboaren inguruko kontuei. Gramatika, *zuzentasunez* hitz egiteko artea bihurtuko da. Hau da, *zuzentasun gramatikalez*. Eta honi, *helenismos* deituko zaio Grezian, eta Erroman *latinitas*. Erretorika, bitartean, *ongi hitz egitearen artea* izanen da, h.d. *entzuleen gogoia erraz irabazteko moduan hitz egitearen artea; entzuleen nahia hiztunarenera ekartzeko artea*; Plutarco-k (K.o. ~50--125) bost mende beranduago, eta Aristotelesen bide beretik, definituko duen bezala Gorgias-en (K.a. ~487--380) erretorika, zeina baita gaur egun ezagutzen dugun lehenengo maisu erretorikoa (cf. Mortara, 21-2).

Hala bereiziko dira sistematikoki, Aristotelesengandik hasita, hiru diskurtso mota ezberdin behintzat, hiru entzule mota desberdinen arabera, eta beraz, hiztunak entzule mota hauetako bakoitzagandik lortu nahiko duen

³³ Ik. euskararen kasurako V. Hidalgo-ren lanak, bibliografian aipatuak.

³⁴ Antzeko eboluzio ez-naturalak aipatu ohi dira beste hizkuntza batzuen hitz ordenaren inguruan ere. Esateko, magia edota suomieraren kasuetan.

fruitu haren araberakoa³⁵. Eta hala bereziko dira ere, *grosso modo*, eta Aristotelesen hurbileko jarraitzaile den Teofrastoren garaitik (IV.-III. m. K.a.), hitz egiteko hiru estilo desberdin ere bederen, *garaia*, *erdia* eta *laua* bezala izenda daitezkeenak. Bakoitzak izango ditu bere ezaugarri propioak, eta bakoitza egokituko da modu berezi batean gai eta entzule tipo desberdinen aurrean. Erretorikaren artea kokatuko da, nolerebait, dialektikaren (h.d. arrazoitzeko artearen) eta poesiaren artean; beti, gramatikaren gain eraikia; baina eta oso harreman estuak dituelarik beti musikarekin ere, beti prosa eufonikoenaren bila, beti doinu eta erritmo atseginen eta egokien atzetik (Scaglione, 5).

Hala, erretorikaren arteak, noski, mila zabal-bide gehiago erakutsiko ditugu gure interesekoa den hitzen ordena eta esaldiaren egitura informatiboaren gaitxoarena baino. Ordea, erretorikak aztertuko du ere, besteak beste, nolabait bere eremuan, informazio transmisioaren egitura esaldiaren barnean. Eta tarteka, aurkituko ditugu honi buruzko aipamen interesekoak. Horien artean, antzinateak hitzen antolamenduaren gainean utzi digun lehen tratatu osoa, aipatu Dionisio Halikarnasokoarena (30 K.a.), nahiz hau ere, ohikoa izango den legez, batez ere, eufoniaren, harmoniaren eta erritmoaren ikuspegitik aztertua egon.

Noski, gauza asko ikas liteke, antzinateak erretorikari eskainitako gogo eta ugariatik, eta bide batetik edo bestetik zerikusia izan lezaketenak esaldi atalen ordenamendurekin. Guk segidan batzuk baino ez ditugu jasoko, gaia inola ere ahitu uste gabe. Hala jasoko ditugu, gure ustez zerikusi estua goa dutenak gure gaur egungo kezkekin, hitzen ordena eta esaldien egitura informatiboaren inguruan. Eta beharbada, erraz kontura gaitzke, nola, maiz, gaur egun ere ez ote garen ari, milagarren aldiz, aurkitzen eta berraurkitzen, gure antzinateak modu batera edo bestera jada formulatuak dituen printzipio beretsuak. Nolanahi, badaezpada, berriro eduki beharko da kontuan, batetik, handia dela beti garaiko testuen zehaztugabetasuna, eta bestetik, gure gaur egungo interpretazioak, berriz, bi mila urte beranduagoak direla.

4.1. Esaldiko elementuen ordena aldaketaren garrantzi "estilistikoaz"

Ikusi dugu (3.1) nola dioen Aristotelesek esaldiko elementuen ordena aldaketak ez duela eraginik honen esanahi logiko edo proposizionalean. Hala ere, antzinateatik ageriko da garbi ikastunarentzat, nola, esaldiko elementuen ordena aldaketak, zer edo zer bederen, bai aldatzen duen. Hala dio, esateko, argi, Dionisio Halikarnasokoak (30 K.a.) bere *Konposizioaz* liburuan (VII): *Maiz, esaldi atal batek, beste baten aurrean kokaturik, edota bestela haren atzean, xarma gehiago izanen du, pisu gehiago; eta aldiz, bestela kokaturik, noblezia galduko du, indar gabea izanen da*. Segidan Tuzidides eta Demostene-

³⁵ Diskurtso motak izanen dira: *deliberaziozkoa*, *judiziala* eta *epideiktikoa* (h.d. *erakuslea*); zuzenduta egonik bakoitza, ordena horretan: politikoei, epaileei, eta entzule arruntei. Lehenengoek etorkizuna, geroa planifikatu behar dute, eta hala, hiztunak etorkizunerako proposamen berrien alde onak eta kaltegarriak azpimarratu beharko dizkie. Epaileek, aldiz, iragana juzkatzen dute, eta hiztunak, jada gertatuko justizia edo injustizia azaldu beharko dizkie. Entzule arruntei, berriz, nahikoa litzaieke gauzen ederra eta itsusia azpimarratzearekin, hiztunak hauen nahia irabazi ahal dezan (Mortara, 28).

sen bina ataleko adibide periodiko bana emanaz, jokatuko du Dionisiok atal-
lon ordena aldaketarekin, bertan ondorioztatzeke, nola, esaldiek, jatorrizko
ordena aldatuta, ez duten inola ere gordetzen, ez jatorrizko grazia, eta ez ja-
torrizko indar bera, ez pisu eta ez bulkada bera. Eta izan ere, hala definitu du
lehenago Dionisiok berak konposizioaren lana, esaldi atalen ordenamendua-
ren ingurukoa bezala, dioenean (II): *konposizioaren lana da hitzak bere artean
behar bezala kokatzea, sintagmak beren artean, eta diskurtso osoa antolatzea pe-
riodoen katea amaigabe batean.*

Kintilianok ere gogoratuko du geroago (IX, i, 17), nola hitz ordenaren al-
daketak, nahiz pentsamenduaren aldaketarik ekarri ez, Aristotelesen aipatu
ildo berean (3.1), bai ekarriko duen zalantzarik gabeko *estilo aldaketa* (Sca-
glione, 21).

4.2. Erretorikoen ordena gobernatzaile etereoak

Nolanahi, erretorikoentzat, hitz ordenaren gobernatzaileak, eta bereziki,
hitz ordena berezien gobernatzaileak, ez dira inoiz nagusiki behintzat izango,
gaur egun bai juzkatzen diren itxuran, ez informazio transmisioaren parame-
troak, ez testuinguruen eraginak, eta ez eta ere elementuen enfatizatze eta az-
pimarratze prozesuak. Beraiek beti joko dituzte garrantzi gehiagokotzat, aipa-
tu esaldi atalen arteko *eufonia* lortzea (h.d. soinuen atsegingarritasuna), esal-
dien eta testuen *harmonia* orokorra gordetzea, eta batez ere prosaren *erritmoa*
mantentzea (Scaglione, 91), dimentsio nahikoa etereoak hirurak. Hainbaten
iritzian, gainera, ikuspegi honek zerikusi zuzena eduki lezake antzinakoek mu-
sikarako erakutsi ohi zuten betidaniko sentsibilitate bereziarekin.

4.2.1. Ohitura, erabilera, zuzentasunaren gidari

Halako kontzeptu etereoek (nahiz seguru asko nolerebait egiaztagarriak
ere izan) gidatu behar bazuten esaldi atalen ordenamendua, antzinateak ba-
zuen horien parean beste irizpide kontrastagarriagorik ere, bederen zuzenta-
sunaren autoritate nagusi bezala erabiltzeko. Eta hala, OHITURA-k, h.d. ERA-
BILERA-k, *consuetudo*-ak, izan beharko omen luke gidari beti hiztunarentzat
eta idazlearentzat. Hala diote, besteak beste, Zizeronek edo Kintilianok ere.
Zizeronek *herriari* zabalduko dio erabileraren autoritate hori (*Oratore*, 160;
cf. Bonmatí, 343), berak inoiz oso garbi utziko ez badu ere, kasuan herri *oso-
az* ari den, edota, batik bat, soilik bere ohiko entzuleria zen herri maila jan-
tzi hartaz. Kintilianoren autoritatea, berriz, erabilera, ez da jada nornahirena
izango, h.d. ez da herri xehearena izango, baizik herri jantziarena. Baina Kin-
tilianok argi asko adieraziko du (I, vi, 44-5; Lausberg 1960, §469), nola ga-
raiko herri jantziaren erabileraren autoritate hau beti egongo den zuzentasu-
naren beste hiru irizpideak lirakeen haien gainetik (h.d. *autore ospetsuen,
erabilera zaharraren, edota arrazoien* beste hiru autoritateen gainetik), nahiz
hiru irizpide hauek ere izan, bakoitza bere mailan, zuzentasunaren gidari.

4.3. Konposizioaren helburu nagusia, estiloaren lehen bertutea: testuen argitasuna

Hala deitzen dio, esateko, Kintilianok *bertute erretorikoetan lehena, pers-
picuitas*-en hari, h.d. ARGITASUNA-ri (VIII, ii, 22), *obscuritas*-aren bizioaren au-
rrean. Baina Kintilianoren aldarrikapen bera, ez da finean, Aristotelesen *Erre-*

torika-ko aldarrikapen beretsuen oihartzuna baino izango (III, II, 1404b; VII; XII), honek prosaren bertuteen artean oso maiz izendatzen duenean testuen argitasunarena, zuzentasun gramatikalaren eta egokitasunaren bertuteekin batera. Konposizioaren helburu nagusia, beraz, hasiera batetik egongo da nahikoa garbi, eta beraz, erabilitako bitarteko guztiek harantz bideratu beharko dute hiztuna eta idazlea: argitasunera (Lausberg 1960, §§528-37, 1067-70; Scaglione, 17).

4.4. Eta ordena ona, ez da, berez, noski, hiztunari lehenik sortu hura

Beraz, argitasuna bada helburu, hiztunak ezingo ditu besterik gabe eman bere hitzak, hauek burura etorri zaizkion ordena berean. Sortzezko ordena hau, hiztunak, aztertu eta, behar izanez gero, aldatu egin beharko du, kontuan harturik, gutxieneko, garaiko zentzu estetiko estandarrak, konposizioaren arauak, eta edertasunaren helburua (Kintiliano, VIII, vi, 62; cf. Scaglione, 86). Hiztunak jarraitu beharreko irizpideen artean, noski, hiztunak era berean izan beharko ditu gogoan, entzuleriaren / irakurlearen ezaugarri bereziak, honen baldintzak eta beharrak.

4.5. Esaldien luze-laburraz. Esaldi periodikoak

Jada Aristotelesek bere *Erretorika*-n (III, IX, 1409b) biziki gomendatuko du prosarako *esaldi periodikoen* erabilera, ez-periodikoen aldean. Eta *periodoa* (h.d. esaldi *borobila*, *borobildua*, hori da hitzaren berezko esanahia grekoan), izango da, hain zuzen, pausa artean egiten den esaldi / enuntziazioa (*per-pausa* beraz?), baina, era berean, *esaldi egituraduna*, eta Aristotelesen hitzetan, *hasiera eta bukaera bat izango dituena bere baitan*, baina halaber *begirada batez besarka litekeena, hala bakarrik gertatuko delarik, gainera, atsegin eta ulergarria*³⁶.

Periodoak, izan, luze edo laburragoak izan omen litezke; baina, ez omen dute, nolana, ez periodoek, eta ez bere atalek ere, batetik, ez laburregiak izan behar, hiztunak orduan etengabe egingo lukeelako estropezu esaldi amaierarekin, artean hau espero behar ez duenean. Baina ezta ere, bestetik, luzeegiak. Batetik, periodo luzeegiak hiztuna arnasarik gabe utziko luketelako, arrazoï fisiologiko soilengatik. Baina eta bestetik, eta okerrago litzatekeena, hiztunak entzulea galduta utziko lukeelako nonbait atzean bere jardunean; entzule hau inola ere eraman ezinda hiztunak desio lukeen esaldiaren azken esanahi hartaraino. Horregatik, entzuleak, irakurleak, beti *begi bistan sentitu* behar omen du esaldiaren amaiera. Eta ez, puntu ortografiko bat aurkitzen duelako nonbait; edo hiztunak, arnasaren faltan, ustekabeko amaiera emango diolako esaldiari halako batean. Baizik eta, Zizeronek argi esango duen bezala (*Orator*, LXVI; Scaglione, 50), entzulearen belarriak beti esperoko duelako batera joango direla hitzak eta zentzua. Eta hala esperoko du hitzak bukatzea, hain zuzen, zentzua osatu denean, eta ez lehenago; baina eta ezta

³⁶ *Periodo* hitza, ordea, ez da berez horregatik *esaldi nagusi*-ren sinonimo izango, nahiz eta gehienean halakoa izan, eta, batez ere, tartean mendeko esaldiak direlarik. Ezen *periodoak* izaten ahal dira, berez, esaldi nagusi koordinatu sailak, edo justaposizioz emanak. Honetan ere terminologia anbiguitatean jarraituko dugu.

ere beranduago. Zizeronek, nolanahi, ez du bere lanetan zuzenean hitzen ordenaren konturik aztertuko bereziki (cf. Scaglione, 49).

Gerora ere gauza beretsuak errepikatuko dira hainbat testutan. Eta argitasunaren bertutearen derrigorrezko osagarritzat zaindu nahiko da beti esaldien luzera, bestela testuen nahigabeko iluntasuna ekarriko delako. Bai esaldiak luzeegiak izatetik, eta bai laburregiak (Kintiliano, VIII, II, 14-7; III, 50; Lausberg 1960, §1069. Kintilianok (IX, IV, 125), arrazoi semantikoak eta mnemoteknikoak ere aipatuko ditu periodoen luze-labur egokiak aipatzean: h.d. entzuleak aldi bakoitzean prozesa eta gorde lezakeen neurriko informazio multzoak eman, ez luzeagoak, ez laburragoak; era berean, hiztunak buruan batera gorde litzakeen neurriko multzoekin egin lana, ez luzeagoekin (Scaglione, 33). Eta badirudi, Kintilianoren erreflexio hauetan ere, badela zer hausnarturik.

Kintilianok, nolanahi, gomendatu ere egingo dio inoiz hiztunari *oratio concisa, esaldi laburra*, erabiltzeko, batez ere diskurtsoen elkarrizketa ataletan eta argumentazioetan. Aldiz, monologoetarako eta narrazioetarako Kintilianok ere egokitzen joko du *oratio perpetua*-ren erabilera, h.d. *esaldi jarraia, luzea, etengabea*, nahiz ez periodikoa izan (Scaglione, 28). (Periodoen, eta oro har esaldien, beste ezaugarri garrantzitsu batzuen inguru, ikus lan honen 4.10-4.10.4 atalak).

Demetriok, nolanahi, (*Interpretazioaz*, v, 241; ap. Scaglione, 69), *laburtasuna* gomendatuko du beti, *luzapenak mezuaren intentsitatea eragozten duelako berez, eta zalantza gabe, askoz ere indar gehiago duelako beti forma laburrean eskainitako esanahi zabalak*, ezen ez alderantziz, forma zabalean eskainitako esanahi laburrak.

4.6. Erabilitako esaldi moten bariazioaren alde

Hala ere, etengabeak izango dira autore gehienetan goian aipatu hiru estiloak nahastearen aldeko deiak; hala nola, bereziki, hauei lotutako esaldi motak: luzeak eta laburrak, periodikoak eta ez-periodikoak denak testu batean. Hain zuzen, horretantxe datzalakoan estilo guztien gailurra: *barietatearen* bertutea, *tædium*-aren izurriteari aurre egiteko modu eraginkorra. Maila guztietan. Eta baita ere, nola ez, konposizioarenean. Hala dio, adibiderako, Dionisio Halikarnasokoak (XIX), orduan erritmoaren izenean ari delarik, nola *prosarik ederrena den, bere ataletan bariaziorik handiena erakusten duen hura; esaldi periodiko, eta ez-periodikoak dituen; eta periodoetan, berriz, batzuetan atal asko eta besteetan gutxi; batzuetan atal luzeak, eta besteetan laburrak; batzuetan azkarrak, eta besteetan geldoagoak, edo itxiagoak; erritmo desberdinak dituen, era guztietako figurak, eta azentuak; horrela bakarrik uxa liteke asea eta asperra*. Lehenago ere XII. atalean aritu da barietateaz, orduan harmoniaren ikuspuntutik. Demostenesek ere (385-322 K.a.) hala aldarrikatuko du esaldien luzeren barietatea (Scaglione, 37), zeinak azken batean arrakasta gehiegirik lortu ez arren grekoen artean, bai lortuko duen zabalagoa erromatarren artean, nola oso bereziki Zizeronekin. Eta berau ere estilo aldatzean aldarrikatzaile nabarmena izango da (*Orator*, LXI-LXII; *Brutus*; Scaglione, 28). Baita ere Kintiliano (X, II, 22; XII, X, 58 hurr.), edo Plinio Gaztea (~62--114) (*Epist.*, II, 5; III, 13; VI, 33) (cf. Scaglione, 36-7; Lausberg 1960, §257-2b).

4.7. Uxatu esaldi barreneko etenak

Hala deituko du jada Aristotelesek hitzun ez-aditua (*Erretorika*, III, V, 254; 257) eten handiegirik ez eragitera esaldian, gramatikalki, funtzioz edo esanahiz, elkarrekin estuki lotutako elementuen artean. Elkarrekin estuki lotutako elementu hauek ematen amaitu aurretik, esaldiko beste zenbait elementu tartean emateak, iluntasun handiak eragin litzakeelako esaldian. Aristotelesen ondotik beste hainbeste egingo dute beste hainbat testu eta autorek ere, hala nola, *Rhetorica ad Herennium*-ek (85-82 K.a.), Seneka Zaharrak, Zizeronek, Tazitok, edo Kintilianok (VIII, II, 15; IX, IV, 28), besteak beste (Scaglione, 27, 44; 65; 86; Lausberg 1960, §1069-2)

4.8. Terminologia arrakastatsu baten sorrera: *naturalis ordo*, *rectus ordo*, *directe ordo*

Aipatu ditugu jada gorago termino hauetako batzuk. Jaso dugu nola Dionisio Halikarnasokoak aipatzen zuen *natura* esaldi atalen zenbait ordenamendu posibleren azpi-erantzule hipotetiko bezala, nahiz berak artean, zuzenean hitz egin ez, *ordena naturalaz*, eta hau onartu ez, gainera. Demetrioren aurretik, Kintiliano izango da (IX, IV, 23-4) *naturalis ordo* terminoa erabiliko duen lehena, baieztatuz, bere ustean, nola naturan baden nolabaiteko ordena bat (VII, Prooemium). Artean, ordea, Kintiliano, Demetrio ez bezala, soilik ariko da elementu koordinatu ezberdinen ohiko enumerazio *ordena natural* batez esaldian, hau da, bere ustean *ohiturak* edota *denbora segidak* berez, naturalki, agintzen duten ordena hipotetiko batez. Eta hala aipatuko ditu, ohiko eta hobesteko ordena natural bezala, *viros ac feminas* (*gizonak eta andreak*) bezalako segidak³⁷; edota *diem ac noctem* (*egunak eta gauak*)³⁸ (Scaglione, 76; Lausberg 1960, §§951b; 952b). Gerora, ordea, aipatu dugu zein eboluzio izango duen terminoak, Demetrioengandik hasita, eta Apolonio eta Priszianoren bidez Frantziako eta Europako XVIII. menderaino.

Rectus ordo terminoa ere Kintilianorena da (VIII, ii), *ordena zuzena* / *laburrena* esanahikoa, eta honen ustez *apta conlocatio*-arekin batera (h.d. *kokatze egokia*-rekin batera) esaldiaren argitasunaren babesle izango direnak (VIII, Prooemium, 31; i, 1-2; ii, 22-4; Scaglione, 17). Kintilianok, ordea, ez du inon argibiderik ematen *ordena zuzen* honen ezaugarriez, nahiz barne sumatuko zaion *ordena natural* haren esanahi beretsua (Scaglione, 76).

Zizeronek bere aldetik behin bederen erabiltzen du (*ordo*) *directe* terminoa (hau ere *zuzena*, *laburra* esanahikoa), ohiko ordena, ordena naturala aipatzeko, *rectus ordo*-ren sinonimo, nahiz gero, hala ere, modu desberdinetan aldatzea egongo litzatekeen hau arrazoi batzuk edo besteengatik (*Partitiones oratoriae*, VII, 24; Scaglione, 88). Terminoak, aurrekoek bezalaxe, arrakasta

³⁷ Nahiz gure mendebaleko euskaran behintzat *andra-gizonak* esan ohi den arruntki, eta ez alderantziz. Nolanahi, egia izango da, halako bikoteak, era berean, alderantzizko ordenako *gizon-emakumeak* bezalako bikoteen ondoan ematen direla. Baina ordenamendu batzuen zein besteen arrazoia, baita euskaraz ere, eta hala hurrengo oharreko bikoteenak ere, beste inon baino erosoago bilatu beharko genuke testu honetako 4.10.2 atalean zabalxeago aipatzen dugun "gero eta elementu haziagoen 'lege' haren" inguruan.

³⁸ Nahiz euskaraz irudi lukeen *gau eta egun* itxurako segidak direla ohikoenak, eta ez alderantzizkoak, aipatu "gero eta elementu haziagoen 'legea'-ren" eraginez beharbada, hala euskaraz, nola latinez.

handia bereganatuko du Europar Port-Royaleko gramatikaren ondorengo eztabaidetan XVII eta XVIII. mendeetan.

4.9. Ordenamendu figuren ikerketa

Hitzen ordena antzinateko kezka nagusi da, eta hala ziurtatzen du antzinatetik ordenaren aldaketa fenomenoek ikerketari eskaintzen zaion arreta eta garrantziak. Kintilianok dioen bezala (VIII, vi, 62-7; Scaglione, 86) ordena aldaketa hauen helburua, batez ere, testuen erritmoa bizitzea izango da. Eta hala ikertuko dira, erretorikaren hasieratik, ordena aldaketaren figuren artean (Lausberg 1960, §§712-754): *anastrofea* (elkarri estuki lotutako bi hitzen arteko ordena trukaketa), eta *hiperbatona* (h.d. elkarri estuki lotutako esaldiko bi elementuren arteko etena - *transgressio*-a-, bien artean hirugarren elementuren bat edo batzuk tartekatuz). Hiperbatonaren aldaeratzat eman ohi dira *epifrasia* eta *tmesia*-ren figurak ere. Eta guztion erabilera bateratuari *sinkisia* esango zaio, maiz erabilera gehiegizkoa bihur litekeena, esaldiari gehiago edo gutxiago desiratutako iluntasuna ekarriko diona eragindako hainbesteko *verborum mixtura*-ren bidez.

Bestalde, ikerketa zabala egingo da *isokolon*-arena ere, h.d. esaldia (perio-
do) atal (*colon*) berdín (*iso*) edota nolerebait orekatuetan ematea, honen aukera desberdinetan: *homoeoteleuton*-a, soinu berdinez bukatuko diren atalak emanek; *homoeoptoton*-a, deklinazio kasu / atzizki beraz bukatuko diren atalak erabiliz; edota atal hauen ahalik eta borobiltzerik handiena litzatekeen *paromoeosis*-a eskainiz; figurak, denak ere, modu desberdinetan gauzatu litezke-
enak.

Beste hainbat figura ere bai. Eta ordea, denek izango dituzte beren parean *bizioak*, besteak beste, 4.7-an horren latz salatutako etenak eragiteko arriskuarekin. Kintilianok *kakosindeton*-a deituko dio (VIII, iii, 59), konposizio egokiaren falta horri, *male conlocatum*-aren ondorio (aipatu *apta conlocatio*-aren parean; Scaglione, 26). Gainera, hitzen ordena aldatzean, maiz salatuko da hizkuntza egitura gaiztoak sortzeko arriskua, egitura zuzenak, gramatikalak izango ez direnak. Halakoei jada Herodoto (-484--420) eta Aristotelesen garaitik *soloezismos* deituko zaie (Householder, 91), eta Apoloniok ere argi gogoraraziko ditu (I, §8) (ik. ere 4.10.3.1 atala *kiasmo*-aren eta predikazio paraleloen figuren inguru).

4.10. Periodoen barne egitura informatiboaz, suspensearen teknika:

protasia + apodosia

Periodoak, jada Aristotelesen garaitik, bi atal nagusitako esaldi bezala izango dira ulertuak. Lehena, egoera, proposizioaren baldintzak, adieraziko dituen, eta era berean nolabaiteko tentsioa sortuko duena. Honi PROTASIA deituko zaio (*aurrean jarritakoa* grekoz). Bigarrenak, aldiz, esaldiaren lehen zatian sortutako tentsio hari eman beharko lioke irtenbidea, eta APODOSIA esango zaio, beranduago izango bada ere (*ordainez edo ematen den hura* grekoz). Gerora, tradizio gramatikalean maiz gordeko dira bi termino horiek baldintzako esaldiaren bi atalak izendatzeko (baldintza aurrekoa eta baldintza ondorioa). Ordea, ezin ezkutatu da, berriro, esaldiaren bipolarizazio berri honen zerikusi estua, hasieratik aipatzen gatozen esaldiaren egitura informatiboaren inguruko eta gure intereseko bipolarizazioarekin: ZERTAZ ARI

DEN hitz egiten esaldia, eta ZER DIOEN esaldiak ari den gai hari buruz (cf. Lausberg 1960, §924).

Eta guztien iduriz periodoen borobiltasuna ziurtatuko da, hain zuzen, honen bigarren alde horretan emanez esaldiaren nolabaiteko GAILUR PREDIKATIBOAK, h.d. aurretik sortutako tentsioaren askatzaileak. Eta aldiz, MARKO PREDIKATIBOAK, h.d. esaldiko atal baldintzatzailea, tentsio sortzailea, emanez, hain zuzen, esaldiaren lehenengo aldean. Eta horixe besterik ez da izango finen suspensearen teknika bera. Eta Zizeronek eta Kintilianok ere eskainiko diote beren nekea diskurtso barreneko suspense teknika horiek aztertzeari (Scaglione, 33-4; 42).

Aristotelesek berak azpimarratzen du sarri periodoen barne-oreka bilatu behar hori, eta periodoen bi parteetako zatiketa. Nahiz Aristoteles bera, batik bat, periodo antitetikoez ariko den, hain zuzen, nolerebait kontrajarriko diotenak esaldiaren lehen atalean emandakoari, bigarren atalekoa (ik. ere 4.10.3.1 puntua *kiasmoaren* inguruan).

Kintilianok ere esaldien halako banaketa predikatiboaz dihardu (IX, III, 80; Scaglione, 32), kasuan Zizeronen adibideen iruzkina eginez. Halaber, Apolonio Diskolok ere (I, §9, 77-8), ordena horretan osatutako esaldia, *protasia apodosiaren* aurretik emana duena, *zuzen* eta *egiazkotzat* joko du; eta aldiz, alderantzizko ordenamenduari arazoak atxikiko dizkio, nahiz, kasuan ematen duen adibidea, bitxia baino gehiago ere baden.

4.10.1. Amaieran baitu periodoak bere klimaxa.

Hala esango du argi, esateko, *Rhetorica ad Herennium*-ek (IV, XIX, 34; Scaglione, 45), esaldiaren klimaxaren norabidean eraiki behar dela esaldiaren mugimendu osoa, harik eta, orduan, klimax honetan, ordura arte bildutako tentsio guztia bat-batean askatuko duen arte. Eta klimax hori, ordea, soilik lortu omen liteke esaldi amaieran kokatuaz, hain zuzen, esaldiko elementurik nabarmen, pisuen eta erabakiorrena(k). Gainera, efektu hori lortzea izango da, berez, periodo ondo eraikitakoen ezaugarri nabarmenena. Demetriok ere gauza bera dio (v, 249; Scaglione, 69-70). Eta Kintilianok ere, hala aipatuko du (IX, IV, 26), nola komeni den, esaldiko atzeneko gune hori gordetzea, hain zuzen, esaldian nabarmentzea merezi duen elementu harentzat (Lausberg 1960, §953), gune horrek eragin berezia duelako beti entzulearen kontzientzian. Fortunatianusek ere gauza bera esango du (*Arthis rhetoricæ*, III, 11; Scaglione, 83).

4.10.2. Gero eta elementu haziagoen "legea"

Aurrekoarekin nolabait lotuta ageriko da "gero eta elementu haziagoena" bezala ezagutzen den "legea", nahiz, hizkuntzaren inguruan, hobe litzatekeen beti *joerez* hitz egitea, ezen ez "legeez". Kintilianok (IX, IV, 23), berak aipatu ordena naturalaren (ik. 4. 8 atala) beste manifestazio bat bezala erakutsiko du joera hau ere, ohituraz eskatuko bide lukeena ematea (Lausberg 1963, §53):

- a) ELEMENTU LUZEAGOAK LABURRAGOEN ATZEAN, eta hala beraz, *luzeenak esaldi amaieran*; edo eta,
- b) ELEMENTU SEMANTIKOKI BORTITZAGOAK BETI AHULAGOEN EDO EZ HAIN BORTITZEN ONDOTIK, eta hala beraz, *bortitzenak esaldi amaieran*.

Finean, esaldia, honen elementu luzeenak bukatu beharko lukete, edota trukean, bortitzenek, garrantzitsuenek (Scaglione, 30; 75).

4.10.3. Hala ere, bi gune garrantzitsu esaldian: hasierakoa eta amaierakoa

Esaldi amaierako guneak garrantzia handia du beraz periodoen borobiltzea lortzeko. Nolanahi, esaldiko beste gune guztiak ez bide dira izango kategoriatu predikatibo berekoak, entzulearen, mezu hartzailearen ikuspegitik. Honentzat, amaierako guneaz gain, garrantzi berezikoa bide da esaldi hasierako gunea ere, honek mezu hartzailearen lehen arreta gehiago edo gutxiago piztea eta irabaztea ekarriko duen neurrian. Aldiz, nahikoa garrantzi txikiagokoak bide dira esaldiko tarteko guneak, zeinak galduak bezala geratuko bide diren mezu hartzailearentzat esaldi hasierako eta amaierako bi gune garrantzitsuenen artean. Beraz, hala gomendatuko zaio hiztunari, mezu emaitzari, ez erabiltzeko hain zuzen tarteko gune horiek, bategatik edo besteagatik nolabaiteko garrantzia eman nahiko zaien elementuak kokatzeko. Hala dio garbi Kintilianok (IX, IV, 29; 67), edota Demetriok ere (*De eloc.*, II; Scaglione, 84). Preskripzio hau, nolana, izan liteke berez dialektikaren eta erretorika orokorraren legeen oihartzun, hauek zeinahi eztabaidatarako gomendatzen duten heinean argumentazio indartsuenak, beti, azalpenen hasieran eta amaieran ematea (Zizeron, *De oratore*, II, lxxvii; Scaglione, 91).

4.10.3.1. Kiasmoa (eta predikazio paraleloa)

Eta esaldi hasierako eta amaierako guneen garrantzi predikatiboaren inguru ari garelarik, merezi du hemen aipamen berezia egitea antzinatetik garrantzizkoa den kiasmoaren figura honi, izena hain antzinakoa ez duen arren (Lausberg 1960, §§800-3-an *commutatio* izenburupean aztertzen da). Figurak ezin hausnarketa zabalagoa suposatzen du, aipatzen gatozen esaldi barreneko informazio transmisioaren norabideen inguru. Eta hala aipatzen da jada *Rhetorica ad Herennium*-ean (IV, XXVIII), edota Kintilianogan (IX, III, 85). Kiasmoa *antitesia* da, non esaldi atalek (ohiko lau atalek), egitura simetriko bat erakutsiko duten, h.d. ispilukoa, San Andresen gurutze baten modukoa “X”: esaldiaren lehen atalean ($a + b$) ordenan ageri diren elementuen parean, emanenez, bigarren atalean, hauen kidekoak liratekeen c eta d elementuak (a , c -ren kide: a^x / c^x , nolabait adierazi; eta b , d -ren kide b^y / d^y), baina hain zuzen alderantzizko ordenan: ($d + c$); esaldiko klimaxa eroraraziz c elementuaren gainean (esaldi hasierako a elementuaren kide zuzen litzatekeen hartan), horrela moduz:

$$a^x b^y / d^y c^x$$

a elementua legokeelarik bigarren maila batean azpimarratua esaldiaren lehen atalean, bitartean erdiko elementuak (b , d) nolerebait ilunduak geratuko liratekeelarik (Mortara, 282-3). *In pace bellum queritas, in bello pacem desideras* (bakean gerra bilatzen duzu, gerran bakea desiratzen) (*Rhetorica ad Herennium*, IV; Lausberg 1960, §800), itxurako esaldi antitetikoak.

Ez luke, nolana, kiasmoaren aipamen honek inola ere ilundu behar predikazio egitura paralelo beraren indarra: $a^x b^y / c^x d^y$ itxurakoa (*Si vis pacem, para bellum* moduko esaldiak); eta egitura honen inguruko hausnarketaren balioa.

4.10.3.2. Subjektu / aditzen kokaguneaz esaldian

Esaldiko bi gune garrantzitsuen teorizazio berak balio du era berean justifikatzeko subjektu / aditzen kokagunea esaldi latinoan, eta hala erabiliko dute autoreek. Apolonioren, aditza esaldiko bigarren elementu bezala ematearen kontuak baino, hobeto egokituko zaizkio, gainera, idazle klasiko aditz atzeratzaile haien kasuari. Esaldiko elementu semantikoki nagusia arruntki aditza izaki (ik. 4.11), honi omen legokioke, berez, esaldi amaierako gunea. Eta hala teorizatuko dute Kintilianok (IX, IV, 26) eta Fortunatianus-ek (*Arthis rhetoricæ*, III, 11; Scaglione, 83) behintzat aipatu bezala (ik. ere 3.5.1), nahiz biek ere biek era berean eskainiko dioten esaldiko atzen gune hori esaldiko beste zeinahi elementuri ere, berau azpimarratu nahi den orduko.

Esaldiko bigarren elementu nagusia, lehen definizio grekoetan bertan ere, subjektua izaki, honek irabaziko luke, horrexegatik, esaldiko bigarren gune predikatibo garrantzitsua, i.e. hasierakoa (Scaglione, 84).

4.10.4. Elementurik jeneralenak lehenik espezifikagoak ondoren

Aipatzen gatozen puntuekin nolerebait lotuta, bada antzinatetik ere beste ordenamendu printzipio bat gogoratzea merezi duena, eta nolerebait esaldi barreneko hierarkia predikatiboen kontuetan sartuko gaituena. Hala dio, esateko, C. Chirius Fortunatianus-ek ere, kasuan, *Zer da konposizio ordena?* galderari erantzunez (*Arthis rhetoricæ*, III, II): GENEROA ESPEZIEAREN AURRETIK EMATEA, KOMUNA BEREZIAREN AURRETIK, URRUNA HURBILAREN AURRETIK: *ez ditzagula luze atzeratu hitz arinen eta hutsalenak...* (Scaglione, 76).

Eta elementu jeneralenak aurretik eta hauen espezifikazioak ondoretik emateko joera honen gainean oinarritzen dute hain zuzen hainbat ikastunek, gaur egun ere, aditza, berez esaldiko elementurik jeneralena ohi dena, honen hainbat osagarri espezifikatzailearen aurretik emateko joera orokorra. Hala SAO itxurako hizkuntzetan; baina baita ere, SOA izanik, aditza derrigorrez amaierarako uzten ez duten hizkuntza haien artean (eta hala beraz, behar bada, hizkuntza gehienetan).

4.11. Aditza esaldiaren gobernatzaile semantikoa

Aipatu ditugu esaldiko bi elementu nagusizat subjektua eta aditza. Hala ere, estoikoetatik, eta are Aristoteles berarengandik aurrera ere, garbi ageri da aditz jokatuaren esanahia garrantzi handiagokoa ohi dela, maila semantikotan, esaldiko beste elementu guztien esanahia baino (Kintiliano, IX, IV, 26; Scaglione, 83). Bestela esan, aditzak "gobernatzen duela" semantikoki esaldia, eta honen beste elementu guztiak (Itkonen, 187), eta hala kontsideratzen bide zuen Paninik ere (IV. m. K.a.) sanskritoaren kasuan (Itkonen, 187).

4.12. Estiloa, nolana, ezin omen da gizabanakoarena baino izan

Hala dio jada, esateko, Seneka Gazteak (K.a ~3-65 K.o.), estiloa ez dela gizabanakoarena baino, eta hau dela, benetan, idazlearen nortasun moralaren ispilua (Scaglione, 64). Eta antzera esango du Kintilianok ere (XII, X, 10), estilo desberdinez hitz egiten ari delarik, ziurtatzen duenean, benetako estilo baten konkrezioa, norbanakoaren kontua dela beti; eta hainbat direla fisio-nomia espiritualak literaturan, nola diren gorputz fisikoak bizitzan (Scaglione, 67).

Eta esaldiko elementuen ordena kontuak, ez dabilta agidanean batere urrun estilo kontuetatik. Gramatikak estuki agindu ditzakeen *ordena zuzen* eta *okerrez* haratago, gehienez ariko baikara, soilik, *ordena egokiago* edota *ez hain egokien* inguruan. Beharbada, estilo egoki, edo ez hain egokien gainean hitz egin litekeen modu beretsuan. Esaldi atalen ordenamendu aukera desberdinak beti baldintzatuko baititu esaldi honen ingurumariak: mezuaren inguruko egoera orokorrak, batetik, eta bereziago esaldiaren inguruko testuak berak (h.d. esaldiaren testuaurreak eta testuondoak), eta testu honek zuzenean eragindako testuinguruak; hala nola, mezu hartzailearen baldintza orokorrek, eta batez ere, mezuaren eta mezu emailearen ezaugarriek. Hala, beraz, esaldiko elementuen ordena, eta honen egitura informatiboaren gaineko ikerketak, ezingo dira inoiz oso urrun burutu, baldintza horien guztien azterketatik, eta azken batean, ikusten etorri garen bezala, klasikoek antzinate-tik jorratu dituzten erretorika eta estilistikaren inguruko hainbat alorretatik.

5. ONDORIOTARAKO

Gaur eguneko hitz ordenaren inguruko ohiko eztabaidetan, maiz jotzen da Pragako Eskolako gramatikarietara aitzindari bila. Berezi W. Mathesius-en ekarrietara XX. mende honen lehen laurdenetik aurrera. Atzerago jota, maiz aipatzen da ere H. Weil-en 1844ko *L'ordre des mots dans les langues anciennes comparées aux langues modernes*, ikerketa labur eta eredugarria, 3. aldiz argitaratua jada 1879rako. Eta ere honen ondoko ikastunak izango diren, G. Von der Gabelenz, H. Paul eta H. Schuchardt, edota orainago O. Jespersen bera ere, beste hainbaten artean.

Era berean, beste maila batean izango bada ere ezagun dira, Frantzian, Arnauld eta Lancelot-en eragin handiko Port Royaleko *Gramera Generala*-ren (1660) ondoretiko eztabaidak hitzen ordenaren inguru. Batzuk jarrera razionalisten ondotik, nola, Du Marsais eta Beauzée "frantses hizkuntzak gordetzen zuen hitzen ordena natural beti tinko eta itxi baten aldekoak"; baita ere geroago Rivarol³⁹, edo Voltaire bera. Eta hauen guztien parean, berriz, jarrera sensualistagoak XVII. mende beretik hasita, nola, Blaise Pascalen lanean, edo, honen heriotzako urte berean argitaratzen den Arnauld eta Nicole-ren Port Royaleko *Logikan* (1662). Eta hauen ondotik, Cordemoy eta Lamy; eta La Bruyère eta Fenelon, eta Du Bos-en jarrera ez-razionalistak. Eta jada XVIII mendean, eta Locke-ren sensualismo bideak sakonduz eta garatuz, Condillac-eko abadea⁴⁰; eta Batteux, eta Diderot. Eta beste maila batean Rousseau bera. Eta geroago Court de Gébelin. Edo D'Alembert beraren jarrera eklektikoagoak.

Nolanahi ere den, gure lan honekin erakutsi nahi izan dugu, nola, eztabaidak askoz sustrai sakonagoak ere badituen. Batetik, denborari begira, orain dela 2000 urte ere ikuspuntu beretsu batzuk jorratzen ziren heinean. Bestetik, hitzen ordenaren kontuak eta esaldiaren egitura informatiboaren

³⁹ Zeinen *Discours sur l'Universalité de la Langue Française*-ri egingo dion iruzkin kritiko zorrotza, besteak beste, gure Domingo Jose Garat baionesak ere 1785ean.

⁴⁰ Zeina goraiapatuko duen gure D. J. Garatek aipatu lanean.

ingurukoak, kokatuaz beti, bai gramatikaren inguruan, baina baita ere era berean honetaz nahikoa haratago. Dela garai bateko erretorikaren alorretan, edota bestela estilistikarenetan. Dela gaur egungo pragmatikaren eremuetik begira, edota diskurtsoaren gramatiken ikuspegietatik. Hala nola, beti, psikolinguistikaren eta giza prozesu kognitiboen behatokitatik ere. Eta azkenik, baita ere, nola ez, esaldien errealizazioaren arlo praktikoen ingurutik, intonazioaren eta prosodia orokorraren unitateen esparrutik ere. Gramatikaz haratago?

BIBLIOGRAFIA

- ÁLVAREZ-PEDROSA, J. A., (1988), "Estudio comparado del orden de palabras en inscripciones jurídicas arcaicas, griegas y latinas", *Revista española de lingüística*, 1988, 109-128.
- APOLONIO DISCOLO (II m. K.o.), *Sintaxis*, Gredos, Madrid, 1987. Introducción, traducción y notas por V. Bécades.
- ARENS, H., (1969), *La lingüística. Sus textos y su evolución desde la antigüedad hasta nuestros días*, Gredos, 1976, 2 tomos.
(1984), *Aristotle's Theory of Language and its Tradition*, Amsterdam, John Benjamins, 1984.
- ARISTOTELES, (IV m. K.a.), *Poética*, in: *Artes Poéticas - Aristoteles - Horacio*, A. González-en argitalpena, Ed. Taurus.
(IV m. K.a.), *Peri hermeneias*, in: *Obras Completas*, t. III, Ediciones Anaconda, Buenos Aires, 1947, P. Azcarateren itzulpena. Baita ere M. Candel-en edizioa, in *Tratados de lógica (Organon)*, II, Gredos, 1988, Madrid, 23-81.
(IV m. K.a.), *Retórica*, A. Bernabé-ren edizioa, Alianza, 1998, Madrid.
- BÉCADRES, V., (1983), *Dionisio de Halicarnaso. La composición literaria*, Salamanca, 1983.
(1985), *Diccionario de terminología gramatical griega*, Ed. Univ. Salamanca, 1985.
(1985), "Los orígenes de la gramática (griega)", in G. Morocho (coord.), *Estudios de prosa griega*, León, 1985, 179-195.
(1987), "Introducción", in Apolonio Discolo, *Sintaxis*, Gredos, Madrid, 1987, 9-70.
(1989), "Método aristotélico y gramática alejandrina", *Revista española de lingüística*, 1989, 71-83.
(arg.) (1992), *La composición literaria*, in *Dionisio de Halicarnaso. Tres ensayos de crítica literaria*, Alianza, Madrid, 1990, 115-215.
- BEUCHOT, M. (1985), *Ensayos marginales sobre Aristóteles*, Univ. Nacional Autónoma de México, 1985.
- BONMATÍ, V. (1988), "Norma y uso según Quintiliano", *Revista española de lingüística*, 1988, 343-5.
- CARRERA, M. (1983), "El orden de palabras en un texto latino alto-medieval. Posible conexión con algunas teorías de la lingüística histórica", *Revista española de lingüística*, 1983, 63-88.
- DANGEL, J. (1995), *Histoire de la langue latine*, Que sais-je?, Presses Univ. de France, 1995, Paris.
- DIONISIO HALIKARNASOKOA, (I m. K.a.), *Traité de l'arrangement des mots, traduit du grec de Denys d'Halicarnasse; Avec des Réflexions sur la langue Française, comparée avec la Langue Grecque*, Ch. Batteux-en itzulpen eta argitalpena, 1788, in *Principes de la littérature*, Nouvelle éd., t. VI, Lyon, 1800. Baita ere, V. Bécadesen argitalpena, 1992, *La composición literaria*, in *Dionisio de Halicarnaso. Tres ensayos de crítica literaria*, Alianza, Madrid, 1990, 115-215.
- GARAT, D. J. (1785) *Compte rendu de Rivarol, "Discours sur l'Universalité de la Langue Française"*, *Mercure de France*, 1985, août, 10-34; 63-73.
- HAGÈGE, C. (1985), *L'homme de paroles. Contribution linguistique aux sciences humaines*, Fayard, 1985, Folio Essais, 2^e éd., 1986.
- HIDALGO, V. (1991), *Altuberren azterketan*, (Lan argitaragabea, doktore tesirako prestatua).
(1993) *Hitzen ordena euskaraz. Euskal gramatikalarrien testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*, (Lan argitaragabea, doktore tesirako prestatua).

- (1994), "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean", *Hizpide*, 35, 1996, 39-51.
- (1994), "Euskararen hitz ordena librea. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II)", *Hizpide*, 36, 1996, 21-27.
- (1994), "Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran. Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III)", *Hizpide* 37, 1996, 23-31.
- (1994), *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*, (Lan argitaragabea, doktore tesirako prestatua).
- (1994), "Zenbait ohar R.P.G. de Rijk-en "Is basque an S.O.V. language?" lanaren inguruan", in *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*, lehen atala (Lan argitaragabea, doktore tesirako prestatua).
- (1995), "Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, SVO?", *FLV*, 70, 1995, 401-420.
- (1996), "Hurbiltze bat euskal hitz ordenaren tradizioari", *FLV*, 71, 1996, 21-43.
- J. Garzia, (1997), "Hidalgo vs Altube", *El Correo*, Territorios, 10, 1997-XI-5.
- J. Garzia, (1998), "Ikastea pentsatzen euskaraz", in *Administrazioa euskaraz*, 19, 1998 Ur-tarrila, 19.
- (1998), "Baina, zer da euskal joskera?", in *Administrazioa euskaraz*, 21, 1998ko uztaila, 18-9.
- HOUSEHOLDER, F. W., (1995), "Plato and His Predecessors", in Koerner, E.F.K.; Asher, R.E. (eds.), 1995, 90-3.
- ITKONEN, E., (1991), *Universal History of Linguistics. India, China, Arabia, Europe*, John Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 1991.
- KINTILIANO (I. m. K.o.), *Institutio oratoria* (12 liburu). *The Instituto oratoria of Quintilian, with an English Translation by H.E. Butler, M.A. in four volumes*, Loeb Classical Library, Harvard Univ. Press (First publ. 1920-22; Reprintings: I (Books I, II, III), 1989; II (Books IV, V, VI), 1985; III (Books VII, VIII, IX), 1976; IV (Books X, XI, XII), 1979).
- KOERNER, E. F. K.; Asher, R. E. (eds.), (1995), *Concise History of the Language Sciences from the Summerians to the Cognitivists*, Pergamon, 1995.
- LAUSBERG, H., (1960), *Manual de retórica literaria*, Gredos, Madrid, 1966 (3 tomo).
- (1963), *Elementos de retórica literaria*, Gredos, Madrid, 1975.
- LEHMANN, W. P., (1974), *Proto-Indo-European Syntax*, Austin: University of Texas Press.
- LINDE, P., (1923), "Die Stellung des Verbs in der lateinischen Prosa", *Glotta*, 12, 153-178.
- LYONS, J., (1968), *Introduction to Theoretical Linguistics (Introducción a la lingüística teórica)*, Teide, 1971, 5ª ed., 1979).
- MAROUZEAU, J., (1910), *La phrase à verbe "être" en latin*, Paris, 1910.
- (1922, 1938, 1949), *L'ordre des mots dans la phrase latine: I Les groupes nominaux; II Le verbe; III Les articulations de l'énoncé*, Paris, 1922, 1938, 1949.
- (1937), "Sur la place du verbe dans la phrase", in *Mélanges Desrousseaux*, Paris, Hachette, 1937, 302-309.
- (1953), *L'ordre des mots en latin*, Paris, 1953.
- MARTINET, A., (1985), "Thème, propos, agent et sujet", *La linguistique* 21, 207-220.
- MORTARA, B., (1988), *Manual de retórica*, Cátedra, Madrid, 1991.
- MOUNIN, G., (1967), *Historia de la lingüística. Desde los orígenes al Siglo XX*, Ed. Gredos, Madrid, 1983.
- PANHUIS, D. G. J., (1982), *The Communicative Perspective in the Sentence: A Study of Latin Word Order*. In: *Studies in Language Companion Series*, 11, Amsterdam - Philadelphia, 1982, John Benjamins.
- PERROCHAT, P., (1926), "Sur un principe d'ordre des mots: La place du verbe dans la subordonnée", in *Revue des Études Latines*, t. IV, 1926, 50-60.
- ROBINS, R. H., (1957), "Dionysius Thrax and the Western Grammatical Tradition", in *Transactions of the Philological Society*, 1957, 67-106.
- (1966), "The Development of the Word Class System of the European Grammatical Tradition", in *Foundations of Language*, 1966, 2, 3-19.
- (1979), *Breve historia de la lingüística*, Paraninfo, Madrid, 4ª ed., 1984.
- SCAGLIONE, A., (1972), *The Classical Theory of Composition. From its Origins to the Present. A Historical Survey*, Chapel Hill, The Univ. of North Carolina Press, 1972.
- UETTI, K. D., (1969), *Teoría literaria y lingüística*, Cátedra, 1977.
- URMSON, J. O., (1990), *The Greek Philosophical Vocabulary*, Duckworth, 1990, Great Britain.

LABURPENEA

Grekoen ekarpen linguistikoari buruzko sarrera labur baten ondoren (1), Grezian esaldiaren egituraren inguruan egindako lehen gogoeten berri ematen da (2), Platon eta Aristotelesen itzaletik, eta hausnarketa abiatzen da jada ordudunik nahasian ageri diren hiru ikuspegi, sintaktiko, semantiko, eta informatiboan ildotik. Ondoren, 3. eta 4. ataletan, antzinetatik zuzenean hitzen ordena edota, oro har, esaldiaren egitura informatiboaren inguruan egindako hainbat gogoeten berri ematen da. Gramatikaren ikuspuntutik (3), eta, batez ere, erretorikarenetik (4), beti, gaur egungo alor honetako kezkekin zerikusia izan lezaketen neurrian. Tarteka, euskararen inguruko konparaketaren bat ere, nola 3.5.1 atalean, esaldi amaierako aditzaren inguruko teoriez, latinaren nola euskararen kasuetan.

RESUMEN

Con una breve introducción sobre aportaciones lingüísticas griegas (1), se da noticia (2) de sus primeras reflexiones sobre la estructura de la oración en Platón y Aristóteles, y se reflexiona sobre los tres ejes, sintáctico, semántico e informativo, que ya entonces se entremezclan en ellas. Los puntos 3 y 4 presentan las reflexiones que la antigüedad greco-romana hace directamente sobre el orden de las palabras en el enunciado, así como sobre la estructura informativa de éste, desde el punto de vista de la gramática (3), como, sobre todo, desde el de la retórica (4), desde la relación que éstas puedan tener con las actuales preocupaciones sobre el tema. Casualmente se hace alguna observación en torno al euskera, como en 3.5.1 sobre las teorías de verbo final, en el caso del latín como en el del euskera.

RÉSUMÉ

Par une brève introduction sur des apports linguistiques grecs (1), il fait part (2) de ses premières réflexions sur la structure de la phrase chez Platon et Aristote, et réfléchit sur les trois axes, syntaxique, sémantique et d'information, qui y étaient déjà entremêlés. Les points 3 et 4 présentent les réflexions que l'antiquité gréco-romaine fait directement sur l'ordre des mots dans l'énoncé, ainsi que sur la structure d'information de celui-ci, du point de vue de la grammaire (3), et surtout du point de vue de la rhétorique (4), depuis la relation que celles-ci peuvent avoir avec les préoccupations actuelles sur le thème. Une observation est faite, par hasard, sur l'euskera, comme au point 3.5.1. sur les théories du verbe final, dans le cas du latin comme dans celui de l'euskera.

ABSTRACT

After a brief introduction to Greek linguistic contributions (1), we are presented with the author's first reflections regarding the structure of sentences found in Plato and Aristotle. The three axes (syntactic, semantic and informative), already then mixed up in these, are dealt with. Points 3 & 4 present the reflections about sentence word order, along with the statement's informative structure, made in Greek-Roman antiquity from the point of view of grammar (3) and, above all, that of rhetoric (4), taking into consideration the relationship that these might have with present day worries about the subject. A few incidental observations are made regarding Basque, as is the case in 3.5.1. where final verb theories in the case of Latin and the Basque language are covered.